



GOIERRITARRA

GOIERRIK ERE



euskarari



¡MINUTU GUTXITAN!

ARGAZKITIK ARGAZKIRA

ARGAZKIEN
KOPIAK
NEGATIBO
BEHARRIK GABE



BEASAIN

FOTOETXE



ORDIZIA
Goen
FOTO

Eguberrietan ez buelta gehiago eman...



Carpintería
onzález
Enmarcación

Tel. eta Faxa 943 161871
Urdaneta, 52

Mekolatan, 22 BEASAIN ☎ 943 882388
Txindoki Pol., 3-3 ORDIZIA ☎ 943 885218

ORDIZIA

Zure opariak markoztatzeko moldura mota guztiak
gure tailerretan

kuadroak - ispiluak - argazki-euskarriak
laminak - grabatuak - originalak



ORDIZIA

DOMINGO UNANUE, 1
(Tren geltoki parean)
☎ 88 93 25

**GABONETAKO
ZORION-TXARTEL
PERTSONALIZATUAK**

OROITH ABESBATZA



ZORIONAK



ETA URTE
BERRION

ESKaintza Berezia:

Pentax MZ-50 kamara
Sigma 28-200 objetiboarekin

82.950 pta.

**KAMARA ETA
PRISMATIKOETAN
ESKaintzak**

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: (943) 88 96 12

Faxa: (943) 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Jon Ordoñez, Ur-
ko Irastorza, Xanti Etxeberria,
Maidar Azurmendi, Joseba Etxe-
berria, Aitziber Murua, Saroi Jau-
regi, Iñaki Gurrutxaga, Josune
Amondarain, Anttonio Berasategi
eta Amaigo Murumendiaraz.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 7.400 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**'Bai
Euskarari'
kanpainaren
azken
txanpa**

Euskararen normalkuntza bultzatzeko 'XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari' kanpaina egiten ari da euskararen munduko enpresa eta erakundeek osatzen duten Gizarte Erakunde Kontseilua. "Gero eta euskaldunagoa da euskal gizarte eta gero eta gehiago dira euskararen aldeko apustua egin duten herritarak. Alabaina, horrek ez digu euskararen iraupena bermantzen. Oraindik urruti dakusagu etorkizunari baikortasun handiagoz heldu ahal izateko behar den normalizazioa; geroa ez du gu bermaturik, ez lurralde osoan, ezta erabilera-eremu guztietan ere", dio Kontseiluak.

Herrietan hainbat batzorde sortu dira kanpaina honen bat eginez. 'Bai euskarari' esan dioten dendari, enpresa eta udalak asko dira. Ekintza ugari ari dira an-

tolatzen kanpaina honen alde, eta horren adibidea da abenduaren 12an Ordizian izan zen jaialdia. Herri kirolak, taloak, gaztainak... izan ziren. Lazkaoren kasuan abenduaren 19an egingo dituzte ekitaldi nagusiak.

Kanpainari amaiera emateko, abenduaren 26an, Euskal Herriko hiru futbol zelai nagusiak jendez bete nahi dira. Donostiako Anoeta, Bilboko San Mames, Gasteizko Mendizorrotza, Iruñako Sadar eta Baionako Agileran, aldi bereko ekitaldiak egingo dira. Arratsaldeko 5,30etan hasiko dira jaialdiak eta Kontseiluak, 'Bai euskarari' esaten dioten guztiak gonbidatu nahi dituzte. Kantariak, bertsolariak, dantzariak, pailazoak... denetarik izango da. ETBk zuzenean emango ditu jaialdiak. Herrietatik autobusak antolatuko dira.

BOTA BERTSOA



Iker Zubeldia

Goierriko bertso-eskolako
ikaslea

**Gabonetan kaleak
argiz apainduta**

Doinua: Oh baserritxo

Gabonak ere gerturatu dira
ta ilunpea akabo
hainbat bonbila ikus daitezke
raso harriturik nago
beti berriak jartzen dituzte
eta geroz eta gehiago
argi indarra gastatutzeko
bildur handirik ez dago.

'Tira txinas' bat ta garbantzuak
prestatzen dira aurrena
ta alguazilak ez ikusteko
kontuz ibili hurrena
ea ba aurren nork ote daukan
punteriarik onena
Udaletxeen buruko mina
mutikoen gozamina.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Oidui-Enerio: gure txokoak

Aspaldiko partez aurreko igande baten bueltatxo bat eman nuen Enerio-Oidui ingurumartik. Ataungo Arratetik igo kotxez eta azkeneko langara iristean, derri-gorrezko 'stop'-a; aurreneko burutazioa: "lurreko bur-nizirik lehen gorago zeuden ba! Orain oinez gehixeago ibili behar! Bueno, mendie hortako dala pentsatu eta pozik!" Baina nere baitan pentsatu nuen: "pista eder hontan artzaiek bakarrik ibiltzen ote dituk?"

Zalantza horretan nindo-ala Oidui-Enerio arteko kaxkotik ikusi nuen Alotza-garamatzan aldapa handi hori erabat urratuta, kamioi edo traktorez. Pentsatzen dut eginkizunen bat izango zela, baina noren ardura da errekupeatzea?

Kaxko horretatik bertatik artzai txabola bat ere ikusten nuen, inguru dena hormigoi zuriz estalita, plaza baten antzera. Beharrezkoa ote zen?

Aurreraxeago beste txabola bat ikusi nuen aurreko aldean sekulako aztakazioa

zuena. Lehen lehor ezagutu nuena erabat lokazturik aurkitu nuen. Nola gertatu da? Nork erreparatu behar du?

Goraxeago plastiko zaharrez inguraturiko beste txabola bat topatu nuen, itsusi baino itsusiago. Nork lagundu eta agindu behar die artzainei inguruaren arabera gauzak egiten?

Goraka jarraitu nuen eta txabola edo etxe eder baten aurrean gelditu nintzen; nire ustez neurritz kanpoko zer-bait zen hura (hala ez bada barkatu). Zein pertsona edo instituzioren esku dago gauza hauek bideratzea?

Beheranzko bidea hartu nuenean blokez eginiko txabola baten aurretik pasa nintzen. Bloke guztiak bista-bistan zituen. Horrela utzi behar ote dute?

Badakit Aralarrek badi-tuela hauek baino arazo handiagoak (txaletak, abia-dura handiko trena, e.a.), baina gauza txikiak konpontzen ez baditugu, nola helduko diegu arazo handiagoei?

Barkatu hainbat galdera gogaikarri egitea, baina beste lau ditut oraindik:

Mankomunitatea biltzen

al da? Nor da lehendakaria? Ba al dago goardarik? Nor da hemen konpetentea gauza hauek bideratzeko?

E.J. (Zaldibia)

Kontsumoa, sistemaren tresna: Euskal produktuak kontsumitu!

Gabonak gaineen dauzka-gula, kontsumoaren inguruan zenbait gogoeta egiteko momentu ezin hobean aurkitzen gara.

Kontsumoa da sistema kapitalistak gazteria integratzeko tresnen artean garrantzitsuenetarikoa. Azken finean, gizarte kapitalista honek kontsumoa helburutzat du eta hori argi eta garbi ikusten da data hauetan. Bi aldiz pentsatu gabe alferrikako produktuak kontsumoan erortzen gara, hau da, gehiegizko kontsumoan, eta guk uste dugu hau ekidin beharreko iharduera dela.

Kontsumo gizarteari kritika gogorra egin behar zaio

eta noski, gazteok kontsumitzaileak garen neurrian autokritika burutu ere. Kontsumo zentzugabeak hondamena dakar, euskal produktu eta komertzio txikiak lurperatzen ditu, esplo-takuntzaren gizartea indartzen du, behar faltsuak sortzen ditu, e.a. Azken finean, gure gizartean bultzatzen den kontsumoa, Euskal Herriaren, euskal herritarren eta gazteriarren interesen kontrakoa da. Beraz, kontsumo ideologizatua indartu behar da, hau da, kontsumoa gure interesen arabera bideratu behar da.

Kontsumoa behar bat dela kontutan daukagularik, Euskal Herriari gehien interesatzen zaion kontsumoa burutu behar dugu. Euskal baserritar, artzai, arrantzaile, gazte artisau, e.a.-ei lagundu behar diegu, Euskal Herriaren eraikuntza nazional eta sozialari eguneroko praktika xumeaz gure aportazio txiki bat gehiago egin.

Ordiziako Jarrai

LIUZ, S. L.

- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiratzea
- Altxarigintza industrial
- Bulego altzariak

☎ 943 88 77 90 Mallotz, 25. pab.
Faxa: 943 88 82 67 ORDIZIA



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15

Argazkiaren nonen edizioa argitzea

En la edición de esta publicación colabora:



fundazio
fundación

TXANDAKA

Tripa festak

Aldrebesten ari dira gauzak, guztiz; edo, behintzat, ez dut uste jende askori burutik pasatuko ere egingo zitzaionik orain dela ez urte asko, Goierriko auzo eta herriek festa egiteko santu berriak aukeratuko zituztenik.

Bateko Done Mondeju baino ospetsuago egin nahi dute besteko San Odolki, auzoko gurtzaileek; Indibabariaren aldarea ere, nola ez, ederki apaintzen dute beste batzuek. Gaztai Goiaingeruaren fama, bere aldetik, ez da nolanahikoa; orain, beraren jaiotzako festa ere ospatzen da; hainbestekoak dira, gainera, beraren dohainak, ezen leku guztietan nahi dutela bere santu, beti sesio bila, bai horixe. Eta lehenagoko santu gehienak kanpotarrak ziren bezala, orain ere badira Sar Errezil bezalakoak, inportatu eta bertakotuak.

Baina santua edukitzea nahikoa ez denez, kofradiak osatu eta prozesio ikusgarriak ere egin behar, zerua irabaztekoan.

Badira, azkenik, oraindik mirari ikaragarriren baten egile ez direlako izango, seguruenez, dohatsu mailaraino baino ailegatzan ez direnak. Baina, besteen atzetik laguntzaile joateko besterik ez bada ere, ateratzen dituzte prozesiora: Talo, erdi jentila; Gaztaina erre, martiria... Ahaztuta neuzkan modakoenak, mirari handienen egile... Santu Ekologiko Makrobiotiko guztiak. Lan ederra bai, denak egutegiko orrietan kabiartzeko.

Eta, fededunek, zer diote? Ezer ez. Kendu paretik, badaezpada, hor doaz eta, arrapataka, santu berriei muin ematera.

Antonio Berasategi



Oraindik beharrezkoak al dira 'Bai euskarari' bezalako kanpainak?



Esther Alegria

36 urte, euskara irakaslea
beasaindarra

Bai, oraindik ere bai. Oraindik jendeak ez dauka euskararen arazoa barneraturik.

Gurutze Sukia

41 urte, euskara irakaslea
zaldibitarra

Oraingoz behintzat bai. Euskararen normalizazioa arlo eta sektore guztietara iristeko denon lana beharrezkoa da. Eskoletan eta esparru batzutan lana egin da; baina lan munduan, merkataritzan, osasungintzan... esparru asko dago bai euskarari esateko.



Joxe Mari Ormazabal

35 urte, euskara irakaslea
lazkaotarra

Lastima beharrezko izatea. Zalantza hau sortzen zait: horrelako kanpainak ez ote duten jarrera bakoitza gehiago isolatzen. Aldekoak egindakoarekin gustora geratzen dira eta aurkakoak ere, berean oso gustora sentitzen dira.



Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

LIBURU AZOKA BEASAINEN

DISKO
VIDEO
JOKU

NOIZ: Abenduaren 12etik 23ra (biak barne)

NON: Kale Nagusia, 32 BEASAIN

ORDUTEGIA: Egunero asteburuak barne, arratsaldeko 5etatik 8etara. Astearte eta larunbatetan goizez ere bai 10etatik 13 etara.

LAGUNTZAILEA: Udaleko Euskara Batzordea

ANTOLATZAILEA: GOIZTIRI



GOIENIZ:

"Despábilate amor"

Eliseo Subiela
Argentina (1996)

Ernesto, Ricardo eta Ana aspaldiko lagunak 25 urte ondoren elkartuko dira, haien atean iraganeko mira eta oroitzapenak egungo ilusioekin nahastuko direlarik. Bidenabar, atzealdean, argentinarraren 30 urte telebistaren leihotik ikusiko ditugu, keinu hutsez modu adierazgarrian mintzatzen den amona baten begien bidez.

Guateakeak, preserbatioben erosketa, lehen maitasuna saiakerak, kubatar iraultza, erbestea eta itzuleraz azalduko dira bizi-bizi, umore punttuz hornituak.

ZINEA

GOIENIZ:

Abenduak 17, 'Cinco años de mi vida' film laburra eta 'Despábilate amor' luzemetraia Usurbe antzokian, 21:00etan.

MUSIKA

BEASAIN:

Abenduak 20, Gabonetako piezen kontzertua Musika Eskolako bandaren eskutik, Loinazko San Martin plazan, 19:00etan.

Abenduak 20, Loinatz Txiki, Musika Eskola eta Loinatz abesbatzen Gabonetako abestiaren emanaldia, Andra Mari Zeruratuaren parrokoian, 20:00etan.

ORDIZIA:

Abenduak 20, Santa Ana Txiki eta Santa Ana abesbatzen eskutik Eguberri kontzertua, Elizan, 20:00etan.

Abenduak 25, Beti Argi musika bandaren kontzertua, Plaza Nagusian, 13:00etan.

ZALDIBIA:

Abenduak 19, antzokian, 22:00etan 'Barrenkaleko Blusa: 7 eskale' ren saioa.

Beasaingo Ikastolaren ekintzak

Beasaingo Ikastolak antolatutako duen 'Eguberri: hitza bihotzari euskara bizitzari' kanpainako ekitaldi guztiak 22. orrian dituzue.

AZAROAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- **Egin investigacion**
Pepe Rei - Eburne San Martin (Txalaparta)
- 2- **Bambulo**
Bernardo Atxaga (Erein)
- 3- **Urregilearen orduak**
Pako Aristi (Erein)
- 4- **Camembert helburu**
Jon Alonso (Susa)
- 5- **Olerki galduak**
Antonio Arruti (Elkarlanean)

DISKOK:

- 1- **Benito Lertxundi & Euskadiko orkestra sinfonikoa** (Elkar)
- 2- **Ruper Ordorika**
'Dabilen harria' (Nuevos medios)
- 3- **Kepa Junkera**
'Bilbao 00.00h' (Resistencia)
- 4- **Joxe Ripiau**
'Paradisuz zinema' (Elkar)
- 4- **Bide ertzean**
'Bide ertzean' (Gaztelupeko hotsak)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda



MARIAN LARREA
BARNE DEKORAZIOA

- ✗ ERREFORMAK
- ✗ PROIEKTUAK
- ✗ ESZENOGRAFIA

☎ 943 88 58 48 - 943 46 34 79
Oriamendi, 30 BEASAIN

A HOLKULARITZA

GOENAGA ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA: laborala, soziala, fiskala, merkantila, kontablea.
GESTORIA: ibilgailuak, garraioak, berrikuntzak, eskriturak.

J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

Eguberri zoriontsuak denoi!

☎ 943 16 00 65
Faxa: 943 16 03 59

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz bestea

MANDUBIKO BENTA
jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriko bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

IKUSENTZUEZKOAK

ZEGAMA:

Abenduak 16, Jabier Juanesen eskutik, 'Gipuzkoako jaiak: udazkena eta negua' ikusentzuezkoa, Kultur etxean, 20.30ean.

HITZALDIAK

OLABERRIA:

Abenduak 21, Amaia Vazquezzen 'Ardura eta askatasuna: hezkuntz arazoak', 14:30ean.

ANTZERKIA

EZKIO-ITSASO:

Abenduak 19, Beasaingo Errail antzerki taldearen 'Sexuaz hitz egin dezagun', Santa Lutziko Kultur Etxean, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

ORDIZIA:

Abenduaren 18ra arte, Jesus Mari Bearen pintura eta eskultura erakusketa, Barrenan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Abenduak 20: Anbotora.

Abenduak 27: Murumendira.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

□ 11 hilabeteko pastor aleman arrazako txakurkumea salgai. Oso modu onean. 943-161945. Arratsaldetan deitu.

□ Pastor aleman arrazako txakurkumeak salgai. Oso arraza onekoak dira. Gurasoak, biak, pedigreearekin. Xabier. 943-180264.

□ Olivetti idaz-makina salgai. Prezio onean. Ia berria. 943 882278 - 943 882047.

□ Yamaha Yz 250 C.C. motorra salgai. 1993. urtekoa. 943 881802.

□ Trabesiako eskiak salgai. Egoera onean. 943 162222.

□ Disko singleak erosten ditut. 943-526577.

□ 10 hilabeteko zezen limousina salgai. 943 800490.

□ Beasainen J.M. Iturrioz kalean, lokala alokatu edo salduko nuke. 3 alde argitara ematen du. 68 m². 943 160237 edo 943 852818.

□ Vespa zuria salgai. SS-AV. 943 187448 (eguerditan).

Lana:

□ Soprano profesionalak kantuko klaseak ematen ditu. 943-766524.

□ Italianoan lizentziatuak italianoazko klaseak eta itzulpenak egiten ditu. 943-766524.

□ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. Deitu 943 883180 telefonora.

□ Begirale euskaldunak behar dira. Baldintza: 18 urtetik gorakoa izatea. 943 162366.

Etxebizitzak:

□ Ordizian edo Zaldibian pisua konpartitzeko lagun bat behar da lehenbailehen. 919-856033.


□ Pisua salgai Ordizian. 88 m². 943 88 54 63 Mikel edo Elena.

Bestelakoak:

□ Maizpide euskaltegiko neska bat familia euskaldun bat ari da bilatzen Lazkaon edo inguruetan. Marta. As-tean zehar 943-889231. As-teburuan 943-610458.

□ Edozein etxeko altzari (sukalde, logela, egongela...) bota edo behar ez badituzu, gustura hartuko genituzke. 943-881573.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-88 05 87.

Abenduak 19-20: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-88 05 87.

Abenduak 26-17: Atorrasagasti (Poligonoa - Ordizia). 943-882938.



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzoa
OLABERRIA



ARRIZAR BODEGOIA
Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

UNIBERTSITARIOAK:

✓ Behar duzuen laguntza Beasainen.

✓ Ordutegi zabalak goizez eta arratsaldeaz.

IKASTEK AKADEMIA

☎ 943 160 120
Joan Iturralde, 5 BEASAIN

Joxe Azurmendi ezagutuz' jardunaldietan Aitxuri herri eskolako 5. mailako ikasleek Joxe Azurmendi egindako elkarrizketa duzue ondorengoa.

- Zer egiten zenuen txikitan? Ba zegoen etxeko lanik eskolako garai horretan?

- Eskolan ordu pila sartzen genituen. Zein eskola txarrak ziren, gainera erderaz hitz egin behar zen euskaraz hitz eginda kastigua ipintzen zигuten.

- Txikitan lagun onik izan al zenuen? Zein zen bere ize-na?

- Zegaman lagun asko baina Xabino anaia onena. Baita ere Joxe Luis Buztinkalekoa baina uste dut hilda dagoela. Parisera joan zen.

- Nola konpontzen zinen erlazioa mantentzeko zure lagun eta familiakoekin?

- Lagunekin puskatu nituen harremanak eta familiakoekin eskutitzak idazten sarritan. Gerora bisitan etortzen ziren hilabetero eta askoz beranduago anaia eta lagunak etortzen ziren ni ikustera.

- Zure anai-arrebatatz inbidiarik izan zenuen?

- Inbidia ez dut gogoratzen baina seguru baietz. Ni baino handiagoak eta indartsuagoak ziren denak.

- Hamar urterekin nora joan zinen?

- Arantzazura, Zegamatik 3 joan ginen urte berean.

- Zure bizitza nola banatuko

zenuke?

- 3 zatitan: lehenengoa Arantzazun estudioak eginez eta hango bizitzan. Bigarrena Erroman eta Alemanian ikasten, eta azken honetan eskolak ematen hamar urtez. Hirugarrenean berriz Euskal Herrian, lanean eta idazten.

- Garai desberdinetan mota desberdinetako liburuak idatzi zenituen?

- Liburuak garaietan baino momentuka banatuko nituzke. Euskal Herrian zeuden problemek erantzuteko idatzi ditut. Liburuak Euskal Herriko denbora desberdinetan banatzen ditut.

- Zein da lehenik idatzi zenuen liburua?

- 'Hitz berdeak', baina publikatzeko Francok ez zuen baimenik eman. Lehenik publikatu zena 'Hizkuntza, etnia eta marxismoa' izan zen Baionan.

- Zure azken liburua zein izan da?

- 'Oraingo gazte eroak'.

- Zein liburu idazteko asmoz zabilta?

- Liburu mota ezberdinak egiteko asmoa dut baina eskolako lanak ez dit denbora ematen pentsatzeko.

- Askok kostatzen al zaizu liburu bat egin eta beste batetan pentsatzea?

- Ez normalean. Lehenik, egitean beste batzuk egiteko asmoak eta materialak izaten ditut. Pentsatu gabe ez naiz hasten.

- Zergatik duzu alde batetik bestera ibili beharra?

- Bizi guztia horrela izan da. Nik Alemanian ikasi nuen eta nire liburuak eta formazioa hangoa da eta hemen ez ditut aurkitzen. Urtero 3 edo 4 hilabetez joan behar dut liburu bila, baina ez turista bezala, nire lanak eskatzen didalako ibiltzen naiz.

- Politikak iruditu al zaizkizu orain arte ikusitako herri eta hiriak?

- Oso politikak. Leku politikak toki askotan. Erroma polite-

na.

- Liburu guztiak bidaietakoak dira?

- Ez. Bidaietako materiala erabiltzen dut, baina bidaietakoak ez dira liburuak.

- Zer idazten duzu zuk: poemak, ipuinak, antzerkiak.. Zein gai dituzu atseginenak?

- Orain gogoetak idazten ditut, Filosofiko pentsamenduak. Euskal Herriko gorabeherak tratatzen ditut.

- Zergatik idazten duzu jesusetaz?

- Mendebaldeko kulturako erreferentzi nagusia delako. Gure maisu nagusia bera da. Bizitza nola antolatu jakiteko.

- Zenbat liburu idatzi dituzu orain arte?

- Ez dakit. 10, 12, 15... Artikulu asko. Liburu batzuk nik idatzi ditut, beste batzuk berriz nire artikulua hartuz lagunek osatu dituzte.

- Jende askok irakurtzen dituzure liburuak?

- Bat bai, besteak ez, 'Euskaldunak eta espaiolak'.

- Zergatik idazten dituzu liburu zailak ulertzeko?


- Ez dira zailak baina ez gauden ohituta gogoetak euskaraz idatzi eta irakurtzen. Nik uste dut lehena naizela gogoe-tak euskaraz egin ditudana.

- Erraza izan al da zure bizitza? Nola laburtuko zenuke?

- Suerte handia beti. Beti lagun onak. Nahiko erraza alde horretatik. Oso esker onekoa naiz.



Joxe Azurmendi Zegamako Aitxuri herri-eskolako haurrekin



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

ERREZETA



**Juan Manuel
Garmendia**
*Kattalin erretegia
Beasain*

PIKILLO PIPER BERDEAK BEASAINGO ODOLKIAREKIN BETETA

Osagaiak: pikillo piper berdeak, odolki, aza eta Ibarrako piperrak. Odolkiak egosteko porru eta tipula.

Pikillo piper berdeak oliotan, gatza eta urarekin bigundu. Odolkia, porru eta tipularekin ondo egosi. Hoztutakoan, piper berdeak odolkiarekin bete. Aza olio eta gatzarekin egosi.

Plater batean, azpian, aza hosto bat jarri eta gainean 4 piper bete. Ibarrako piperrak gatza eta oliba olioarekin bustita ertzetan jarri. Platera oso beroa mahairatu behar da.



**Amagoia
Muruamendiaraz**
Gerontologa

Bakardadeak ez du adinik, edozein garaitan ager daitezke, eta hala agertzen da gainera. Askotan entzun izan ditugu geure adinduak bakarrik sentitzen direla adierazten.

Gaitz hau batez ere emakumeek, eta hauen artean alargunek, jasaten dute batez ere; gizonezkoetan eta bikoteetan ere agertzen bada ere. Bakardadea gainera, sarritan tristurarekin elkartua azaltzen da.

Zenbait pertsonak bakardadea bere borondatez eta gogo onez aukeratzen dute, bere bizimoduaren zati dela onartuz. Beste batzuk ordea, egoera hau ez dute gogoko, ez da beren nahia eta arrazoi honengatik gogo txarrez bizi dute

AHOLKUA

Bakardadea

egoera hori, eta beraientzako sufrimentu bilakatzen da.

Bakardadearen ondorioak desberdinak izan daitezke pertsona eta egoeraren arabera, baina ondoren aipatzen ditugunak dira gehienetan ematen direnak: norekin hitz eginik ez izatea, telefonoak noiz joko zain egotea, lagunak noiz deituko itxarotea, seme-alabaren bat etorriko den esperantzaz egotea, arratsalde osoa telebistaren aurrean pasatzea... etab.

Baina bakardadeari aurre egiteko, ez dago erreze-ta magikorik, asko dira egoera hori hobeto jasan edo gainditzeko bideak, eta bakoitza berea bilatzen saiatu beharrean izaten da.

Dena den, borondate oneko hainbat aholku ematen ahalegindu nahiko nuke:

- Bakardadea ez da jendez inguraturik izatearekin soilik gainditzen.

- Bakardadearekin ongi bizi ahal izateko, egoera onartu behar da eta geure lagun bihurtzen saiatu.

- Bizitzako egoera 'zail' honen alde onak bilatu, eta norbera handitu edo adoretzen saiatu; era honetan bizitza ahalik eta osotasun gehienez bizitzen ahaleginduz.

- Gogoko dituzun gauzak egiten saiatu.

- Baliogarri sentiarazten zaituzten lanak egiten saiatu.

- Zoaz kalera, kirola... edo ikastaroren bat egitera... lagunekin kafetxo bat hartzera...; baina saia zaitez zuk zeuk deitzen, besteak dei dezaten zain egon ordez.

Azkenik, aholkuak laburrak izan badira ere, zaindu itzazu familia eta lagunartea; izan ere, maitasuna eman eta jasotzea, bakardadearen aurkako erremedio-rik hoberenetako bat baita.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



MUJIK
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Ordiziako Gazte Ekimena

Ordiziako Gazte Ekimenak prentsurrekoa eman zuen abenduaren 5ean. Aurkezpenean adierazi zutenenez, "ordiziar gazte talde bat, presoan egoera larria eta jasangaitza ikusirik, guztiok elkartu eta egoera hau kaleratzera beharturik sentitu garenak. Nahiz eta presoekiko sentsibilizazio orokorran den gazte arloan, hutsune bat somatu dugu gai hau kaleratu eta lan egiteko orduan. Sortzen ari garen talde berri hau ('Gazte Ekimena') anitza eta irekia da; eta kaleratuko dugun gai bakarra 'Euskal presoak Euskal Herrira' eta oinarritzko giza eskubideak izango dira".

5 helburu ditu talde honek: Euskal presoak Euskal Herrira; 3/4 beteta dituzten presoan berehala aske uztea; 90. artikulua betearaztea; oinarritzko giza eskubideak errespetatzea; eta harreman zuzenak izan eta Ordiziako gazte eta presoan artean informazio trukaketa bultzatzea.

Ordiziako arlo ezberdinetako gazteei eman nahi die Gazte Ekimenak presoan egoeraren berri. "Bestalde, herrian gertatzen diren gauza txiki guztiei buruzko informazioa zabaldu nahi genieke presoek eta aldi berean interesgarria izango litzateke presoek ere eguneroko bizitzari aurre egiteko bertan planteatzen diren ekintza guztiei buruzko xehetasunak herritarrei azaltzea". Astelehenero, arratsaldeko 7etan, Barrena Kultur etxeko 7. gelan biltzen dira Gazte Ekimenekoak.

Aitor Zabaleta

Madrilen Atletico de Madrid taldeko jarraitzaileek hil zuten Aitor Zabaletaren aita, Javier, zegamarra da. Oso familia ezagunekoa Zegaman. Aitak Idiazabalgo Euskadiko Kutxaren bulegoan lan egiten du.



Ramon Uranga

Uztailaren 15etik Egin kasuagatik kartzelan egon den Ramon Uranga preso beasaindarra aske utzi zuen Baltasar Garzon epaileak, egin zitzaion ebakuntza baten ondorioz koman gelditu eta gero. Burmuinean zuen odol bildua kentzeko ebakuntza egin zioten Urangari. Familiartekoei salatu dutenez, Urangak espetxeratu zutene-

tik buruko mina askotan izaten zuen, baina Soto del Real kartzelako medikuek ez zuten ospitalera eramatea baimendu, egoera asko larritu zen arte.

CAFen lan istripua

Azaroaren 28an CAFen izandako lan istripuan Santiago Enjamio Vega langilea hil zen. CAFeko langileek, azaroaren 30an, egindako bileran zera erabaki zuten: "1. Santiago Enjamio Vega langilearen familiari, gure elkartasuna adieraztea. Langilea Miresman kontratakoa zen eta larunbatean azaroaren 28an Altzairutegiko labean izan zuen istripuaren ondorioz igandean, 29an hil zen. 2. CAF enpresak azpi-kontratazio politikarekiko gure desadostasuna publiko egin, laneko ezbehar kopuruarekin zer ikusi zuzena duela uste baitugu".

Hauteskunde sindikalak CAFen

Azaroaren 12an egin zituzten hauteskunde sindikalak CAFen. Emaitzak hauek izan ziren: ELAk 10 ordezkari (aurrekoetan baino 1 gutxiago), LABek 7, CCOOk 3 eta ESK-CUISek

OIANGU

T A B E R N A



☎ 943 88 30 03


Euskalerrria z/g ORDIZIA



Gabon zoriontsuak
eta Urteberri on!

BASAKANA

ITURRIOZ, 11
BEASAIN



CHANEL

CLINIQUE

Palmira Picano

ISSEY MIYAKE

Jean Paul GAULTIER

Calvin Klein

San Inazio, 14
☎ 943 88 93 90
BEASAIN

Lirain

Gabon **Perfumeak** zoriontsuak!
Opariak

Kosmetikoz osatutako otartxo pertsonalizatuak

YVES SAINT LAURENT

LOLITA LEMPICKA

Christian Dior

ESTÉE LAUDER

Oscar de la Renta

3 (aurrekoetan baino 1 gehiago). UGTek ez zuen ordezkaririk lortu.



Patxi Zubizarreta

Ordiziako idazleari Euskadi saria eman diote, haurren literatura atalean. Bestetik, beste liburu bat kaleratu berri du Alberdania argitaletxearekin: 'Atlas sentimentala'. Gazteentzako eleberria da. Marokora joandako mutiko baten gora-beherak kontatzen ditu.

Juan Jose Agirre

Lazkaoko Beneditarren komentuko liburutegiko arduraduna den Juan Jose Agirre omendu zuten Durangoko Euskal Liburu eta Disken azokan. Euskal Herriarekin zerikusia duen guztia biltzen saiatu izan da 25 urteotan.

Ekaitz Goikoetxea Iker Zubeldia

Zumarraga eta Urretxuko udalek antolatutako Iparagirre literatur lehiaketan, Ekaitz Goikoetxea eta Iker Zubeldia beasaindarrek sari bana jaso dute, poesia sailean, gazteen mailan.

Ekaitz Goikoetxeak lehengo saria jaso du, 'Zeru ertzaren muga' lanarekin. Iker Zubeldiarentzat bigarren saria izan da, 'Maitasunaren gurin usainean' lanarengatik.

AEKren liburu azoka Beasainen

Goiztiri AEK euskaltegiak antolatutako, euskal liburu, disko, joku eta bideoen azoka

izango da abenduaren 23ra bitartean, Beasaingo Kale Nagusiko 32. zenbakian. Egunero egongo da irekita, arratsaldeko 5etatik 8etara. Astearte eta larunbatetan goizetan ere irekita egongo da, 10:00etatik 13:00etara. Beasaingo Udaleko Eus-kara batzordearen laguntza du azokak.



Takolo, Pirritx eta Porrotx

'Baserrian' izeneko diskoa kaleratu dute pailazoek. Diskoan beste behin ere, Ordiziako Musika Eskolako haurrek hartu dute parte, bai kantuetan, bai kantuen arteko ipuintxoetan. Zaldibiako txalapartariak ere hartu dute parte diskoan.

Karlos Argiñano

Juan Mari Arzak sukaldaria-rekin batera, Karlos Argiñano 'Escuela de cocina y de la buena mesa' bilduma aurkeztu du. Elikadura osasuntsu eta orekatua zer den azaltzen da bertan.

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxa: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK



VIA
Alpe
MASTER
Elektragaiak
Sukaldeko altzariak
Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN



MUJKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

AMEBI



TXOTX garaian ere
EGUNEROKO MENUAK
emango dira.

Zubierreka,9

☎ 943 16 25 23

LAZKAO

Abenduaren 12az geroztik

TOTX

garaia zabalik

EGUBERRIETAN:

Gabon gaua eta
Eguberri eguna
itxita

Urte Zahar gaua
eta Urte Berri
eguna itxita

Senideak: "Goierri 23 preso daude eta legearen arabera, horietatik zazpi kalean egon behar lukete"

Preso eta errefuxiatuen senideen elkarteak (Senideak) 'Gabonetarako Euskal presoak Euskal Herrira' kanpaina ari da burutzen. Aldarrikapen horrekin batera, zigorraren hiru laurdena beteta dutenak eta gaixotasun sendaezinak dituztenak kaleratzea eskatzen dute. Dena den, Senideak-ekoek garbi utzi nahi izan dute, beraiek presoak etxean nahi dituztela, eta Euskal Herriratzea lehenengo pausoa dela. Goierri 23 preso politiko daude, 2 bakarrik daude Euskal Herrian eta 21tik 7k kalean egon beharko lukete, legeak dionaren arabera, zigorraren 3/4a beteak dituztelako.

- **ETak su-etena iragarri zuenetik zer aldatu da senideentzat eta presoentzat?**

- Ez da ezer ez aldatu, ez senideentzat ez presoentzat. Gose grebak egiten ari dira presoak oraindik. Orain arte behintzat, egoerak lehenean jarraitzen du. Kalean agian 'Euskal presoak Euskal Herrira' aldarrikapena eskatuz jende gehiago kaleratu da.

- **Komunikabideetan orain dela gutxira arte 'tabua' zen presoetaz eta senideetaz hitz egitea.**

- Orain erraztasun gehiago



ikusten da. Orain denak gainera daude. Guk berdinak izaten jarraitzen dugu, ez gara ezertan aldatu, baina euren aldetik zabaltasun handiagoa dago. Morboa ere jarri dute piska bat.

- **Sensibilizazio handiagoa al dago orain herritarren artean?**

- Badirudi orain legea benetazkoa dela eta, jendea hori aldarrikatzen hasi da. Baina legea ez da su-etenen ondoren egindakoa. Legea aspaldi dago hor, eta orain komunikabideek, politikoez, guztiek, honetaz hitz egiten dute. Baina Senideok-ekook uste dugunez, hitz egin bakarrik egiten da, ez da inongo pausorik eman, legea benetan bete behar da euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko. Komunikabideek gaia aipatzen dutelako jendea orain galdezka hasi zaigu. Guk lehen ere gauza bera esaten ari ginen, baina

jendearengana ez ginen iristen, komunikabiderik ez genukalako. Jendeak lehen pareta bat sortzen zuen, eta hori orain hausten ari da.

- **'Gabonetarako Euskal presoak Euskal Herrira' kanpaina ari da egiten Senideak. Aurrera begira zein ekintza dituzue aurrikusita?**

- Herri guztietan mozioak sartu ditugu eta alderdi gehienek onartu egin dute. Urte Zahar egunean, mozioko puntu batek hala dioenez, konzentrazioak egingo dira udaletxe aurreetan. Herri batzuetan udalak deituta eta besteetan Senideak-ek deituta. Alkateak eta zinegotziak bertan izango dira. Mozioak esaten du Gabonetarako euskal presoak Euskal Herrian egon behar dutela. Orain arte herri guztietan onartu da.

- **Esperantzarik ba al duzue Gabonetarako euskal presoak Euskal Herrian izateko?**

- Euskaldun guztion eskue-

tan dago. Ez da hitz egin behar bakarrik, bizilagunarengana, ikastetxeetara, elkartetara... joan, hitz egin eta denok elkarrekin ekarriko ditugu.

Esan beharra dago guk ez ditugula barruan nahi, etxean baizik. Hasteko Euskal Herrira ekarri behar dituzte, lehenengo pausoa izango da hori, baina gero etxera. Jendeak ez dezala pentsatu presoak Euskal Herrira esaten ditugunean, kartzelan edukitzea nahi ditugula.

- **Legearen arabera, Goierriko zein presoek egon beharko lukete kalean?**

- Goierriko 23 preso daude eta horietako zazpi kalean egon beharko lukete. Eugenio Irastorza, Antton Garcia de Molino, Jokin Zubeldia eta Josu Aierbe ordiziarrak, Txemi Arteaga beasaindarra, Patxi Eskitxabel legorretarra eta Karlos Ioldi ataundarra. Antton Garcia de Molino ordiziarraren kasua azpimarregarria da. 67 urte ditu, adinagatik ere kalean egon behar luke. Osasun arazoak ditu eta horregatik ere kalean egon behar luke. Eta zigorraren hiru laurdena ere beteta dauka, 17 urte daramazki kartzelan. Denena da gogorra, baina gizon honena oso gogorra da.

- **Egoera berri honetan presoekin jokatzeko ari direla esaten da.**

- Aspalditik, eta hori garbi

INAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepeidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA

URBITARTE
sagardotegia



Erreserba telefonoa
943 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN



943 88 96 67 ZALDIBIA

Goierriko preso politikoak

23 dira Goierriko preso politikoak. Bi bakarrik daude Euskal Herrian, Juan Mari Olano Martutenen eta Mikel Zumarraga Iruñan. Zigorren 3/4ak beteta dituztenak, Eugenio Irastorza, Jokin Zubeldia, Antton Garcia de Molino, Josu Aierbe, Txemi Arteaga, Karlos Ioldi eta Patxi Eskitxabel dira. Senideak-ek adierazi digutenez, 19 errefuxiatu ere badaude Goierri eta hauek ere Euskal Herrian bizi behar dutela aldarrikatu dute.

Ataun:

Karlos IoldiMurcia, 850 kilometrora

Beasain:

Jokin AldanondoBurgos, 250 km.
Txemi ArteagaAlbacete, 750 km.
Mikel AzurmendiAlcala de Henares, 450 km.
Juan Mari InsaustiFresnes (Frantzia), 856 km.
Xabier IrastorzaFresnes (Frantzia), 856 km.
Josu LopezOsny (Frantzia), 1.000 km.

Ezkio-Itsaso:

Pili GabirondoA Coruña, 796 km.
Mertxe GaldosMurcia, 850 km.
Gonzalo RodriguezA Coruña, 796 km.

Legorreta:

Patxi EskitxabelCordoba, 850 km.

Ordizia:

Josu AierbeAlcazar de San Juan, 650 km.
Rufino ArriagaFleury (Frantzia), 870 km.
Maria Jesus ArriagaFleury (Frantzia), 870 km.
Antton Garcia de MolinoCastello, 650 km.
Asier IrastorzaCaceres, 700 km.
Eugenio IrastorzaAlmeria, 1.040 km.
Kepa MujikaLa Sante (Frantzia), 850 km.
Pako MujikaYzeure (Frantzia), 735 km.
Andoni UrrestarazuHerrera de la Mancha, 670 km.
Jokin ZubeldiaJaen, 800 km.

Ormaiztegi:

Mikel ZumarragaIruñea

Zaldibia:

Juan Mari OlanoMartutene

- Presoen artean zer nolako ilusioa dago?

- Ilusioa badaukate, beste egoera bat dagoelako. Baina ez dakit zenbateraino. Azken batean beharrak sortzen ditu ilusioak. Presoen kolektiboa ez dago oso komentzituta eta ilusionatuta Gabonetarako Euskal Herrian egongo direla. Bide bat ireki dela ikusten dute. Beraiek ere sentitzen dute beraiekin jokatzeko ari direla, asko jokatu duela beraiekin. Batzuk ekarri, besteak ez... joko zikina

egingo dutela. Presoek hori salatzen dute, eta senideok ere bai.

Preso batzuk Euskal Herria ekarri eta komunikabideak hori zabaltzen hasten badira, jendea lasaitzeko modua izango da. Almeriako kartzelako presoak borrokan ari ziren beraien giza eskubide batzuk eskatzeko. Onartu egin zitzaizkien eta Espainiako komunikabideak hasi ziren esaten, Gobernuak keinu bat egin zuela.

Dispersioa

Ani Otaegik Asier Irastorza semea Cacereseko kartzelan du, bost urteotan. "Hamabostean behin autobusa izaten dugu. Autobusa ez dagoenean, kotxean joaten gara. Autobusa Donostian edo Gasteizen hartzen da. 9ak aldera etxetik atera eta igande goizaldeko 2etan iristen gara. Bisitak 40 minutukoak izaten dira. Aurrez aurrekoak hilean bi izaten dira: familia artekoena ordu eta erdikoa eta intimoa 2 ordukoa. Baina suetenaz geroztik, mermatzen ari dira bisitako denbora, harrotu egin dira. Aurrez aurrekoaren ondoren bilustarazi egiten dituzte. Bisitak egiteko nekea eta gastuak ikaragarriak dira. Nik esaterako, urtean, bidaietan 1.300.000 gastatzen ditut".

Mila Mujikak, bi anaia ditu Frantziako bi espetxe ezberdinetan. Kepa La Santen, Parisen eta Pako, Yzeuren, Molinsen. "Guk ere bisitetara joateko, autobusa hamabostean behin izaten dugu. Donostian autobusa hartzen dugu ostiraletan, iluntzeko 8etan eta igande goizaldeko 6ak aldera iristen gara. Hiru kartzeletan egiten ditu geldialdiak autobusak, eta handik jendea mugitu egin behar izaten da, tren eta taxieta. Bisitak ordu erdikoak edo hiru laurdenekoak izaten dira. Gure kasuan, Pako kartzelaz aldatu dutenez, autobusean joanda ezin ditugu egun berean bi bisitak egin. Pakorengana joateko ez daukagu autobusik, autoan joan behar gara. Frantziako kartzeletan ez da aurrez aurreko bisitarik izaten. Ez dago intimitaterik. Urte asko dira, eta senar-emazteek haur bat izan nahi badute, ezin dute. Horrelako kasu bat badago eta inseminazio artifizialarekin umea ekartzeko esan zien".

Bi senide hauek gogoratu nahi izan dute, gastuak eta nekez gain, auto istripu ugari izan direla bidaietan. 7 hildako ere izan dira dispersioaren eraginez, baita elbarri gelditutakoak ere.

geratu da orain ere. Presoekin jokatzeko ari dira, eta senideekin ere bai. Presoak Euskal Herria ekartzea ez da gesto edo keinu bat. Legea da eta legearen arabera presoek Euskal Herrian egon behar dute. Presoak askata-

sunak bakarrik galtzen du kartzelan dagoenean, eta kasu honetan, familia, herria, lagunak... galdu ditu. Baina Euskal Herria ekarrita bakarrik ez da nahikoa, kartzelako giza eskubideak errespetatu egin behar dituzte.



☎ 943 88 55 00 ORDIZIA



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

☎ 943 88 79 19

Domingo Unanue, 1 ORDIZIA

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

Nikaraguako hondamendiaren kronika

Joxean Lizarazuren ahotik

Joxean Lizarazu beasaindarra 1990. urteaz geroztik, Nikaraguatik joan-etorrian dabil. Ertamerika Mitch hurakanak astindu zuenean, Beasainen zegoen. Baina emaztea eta semea han ditu, Esterilen, eta gertutik jarraitzen ari da bertan gertatuko hondamendia. Hildakoak zenbat izan diren ez dago jakiterik.

Beasainen zegoen Joxean Lizarazu Ertamerika Mitch hurakanak hondamendia eragin zuenean. Azaroaren lehenengo egunetan eurite handiak izan ziren. "Zerbait gertatzen zela banekien. Deitu egin nion emazteari astebate lehenago, euri asko ari zuela baina inolako desastrek ez zutela espero esan zidan. Astebate ondoren telebistak-eta hasi ziren zerbait esaten eta desastrea egina zegoen. Etxeak erorita, Esterilen auzoak eta hiria lotzen zituen zubiak erorita... 100.000 biztanle ditu gutxi gora-behera eta auzo-etaoak hirira ez ziren joan



Esteril hirian, hurakanak auzoak eta erdigunea lotzen zituen zubiak puskatu zuenez, oinezkoentzako bidea egokitu behar izan dute.

gauzak erostera, zubiak puskatuta zeudelako. Zubia apurtuta zegoenez, oinezkoentzat zubitxo bat egin zuten". Esteril hiria Nikaraguararen iparraldean dago. Joxeane Esterilen dauka familia eta etxea. Kalte pertsonalik ez du izan, baina etxe-ko bi logela busti-busti egin da gelditu ziren. "Jendea etxerik gabe gelditu da. Dirurik ez dauka teilatua jarri edo egurra erosteko".

Gaixotasun berria

Beste zoritxar bat ere badute orain nikaraguarrek Joxea-

nek adierazi digunez: "kole-
ra, malaria... gaixotasun-
gain, beste gaixotasun berri
bat sortu da egunotan: zito-
matisis. Hildako abereen-
gandik sortua omen da. Sen-
dagaia falta dira. Beasain-
go alkatea Esterileko alkate-
arekin jarri zen harreman-
tan, eta gaixotasun horri au-
rre egiteko sendagaia be-
har direla esan zion. Hilda-
ko azken bost lagunak gai-
xotasun honekin hil omen
dira. Sendagai falta dago,
ministeritzako aurrekontua
bukatuta baitago".

Iparraldean sandinistak

Iparraldeko herrietara kosta-
tu egin zen kanpotik bidali-
tako laguntza iristen. Bate-
tik, errepede nagusiko zubia
moztuta zegoenez, helikop-
tero bidez iritsi behar zen
bertara, eta Nikaraguako ar-
madak helikoptero oso gutxi
ditu, Gobernuak murriztu
egin baizituen. EEBBetako
eta Frantziako armadako he-
likopteroekin iritsi zen azke-
nean laguntza.

Beste oztopo bat ere izan
zen hondamendia gertatu eta
berehala laguntzarik ere iris-
teko. "Aleman lehendakaria
partidu neolibéralekoa da,
somozista. Eta iparraldeko-
ak, gehienak, sandinistak di-
ra eta lehendakariak errete-
nitu egin zituen hasieran la-
guntzak. Istilu handiak izan
ziren. Orain iristen da la-
guntza. Beste herri batean
sumendi bat ere piztu zen eta
azpiko herri guztia desager-
tu zen ia eta lehendakariak
oraindik ere pazientzia es-
katzen zien. Oso haserre ze-
goen jendea, hiltzaile deituz
lehendakariari. Jendea as-

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



INPRIMATEGIA
URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Gabon zorientsuak!

Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxe: 943 16 14 07 ORDIZIA

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ALTZAGA

pertuta dago, azkeneko 8 urteko gobernuarekin”.

Lehenengo egunetan Kubako medikuei ez zien utzi Gobernuak Nikaraguan sartzen. “Sandinisten garaian Kubako medikuak egon ziren Nikaraguan. Lan handia egin zuten. Emakume batzuk esaterako, azaleko pigmentazio arazoak dituzte eta mediku kubatarrek ukendu natural batekin sendatu egiten ziren. Oso ondo ezagutzen dute kubatarrek Nikaragua. Orain uste dut lanean ari direla kubatarrek. Lehendakaria inpotente geldituko zen, jende guztia laguntzen eta kubatarrek lagundu nahian... mundu guztian azaldu zen ez zituela kubatarrek onartzen... baina orain uzten die”.

Jende asko hil da Ertamerikan Mitch hurakanaren ondorioz, “panorama gogorrrak daude. Askok familia osoa galdu dute. Familirik gabe gelditu diren umeak han daude etxe atarietan negarrez. Janaria ematen die eta momentuan ez dute negarrik egiten, baina ume horiek laguntza psikologikoa behar dute. Psikologo gutxi joan dira Nikaraguara”.



Erdi nikaraguarra

1990ean joan zen Joxean Lizarazu Nikaraguara, sandinistek hauteskundeak galdu zituzean. ‘Mugaz gaindik’ Gobernuak Kanpoko Erakundearekin joan zen klinika

bat egiteko dirua eramatera. “Esterileko jende batekin ere harremanak banituen eta han gelditu nintzen 6 hilabetez. Lantxo bat ere lortu nuen. Gero joan-etorrian ibili nintzen, proiektuak egiteko dirua eramanez, ONGeen bitartez”. Han ezkondu zen, eta semea eta emaztea han bizi dira. Etxea egiten ari da piskanaka. Eta etxe hori eraikitzeke diru piska bat lortzeko, tarteka, Euskal Herrira etortzen da, lan egitera. Elektrizista da ogibidez.

Hango etxea hori bai, hemengo erosotasunik gabea da. “Kandelaren argiarekin bizitzera ohitu egiten da. Autoaren bateriarekin bonbila txiki bat piztuta izatera ere bai”.

Elkartasuna

Diru bilketarako kanpaina ugari egiten ari da mundu zabalean. “Elkartasuna beti dago. Baina zer nolako kanpainak egin behar diren ez dakit. ONGak badaude, Euskal Fondoan sartutako udalak ere bai, Beasaingo Udala ere hasi da mugitzen... baina laguntza beti behar dute haiek. Kanpainak lagundu egiten dute baina gero jendea ahaztu egiten da”. Joxean Lizarazuren esanetan, “burua ez dute jasoko ez hamar urtean, ez hogeitau urtean. Izan ere, kanpoko zor handia daukate Ipar Amerikarekin, Espainiare-

kin... Etxebizitzak eta errepi-deak konpontzeko 10 urte beharko direla esaten da. Lanik ere ez dago. Egunean bizi dira. Urtean hiru uza izaten dituzte, eguraldiak lagunduz gero”.

Joxean beasaindarra izaki, Beasaingo Udala egiten ari den kanpaina ondo ikusten du. Biztanleko 1.000 pezetak biltzea da helburu. Denda eta tabernetan bonoak erosiz bilduko da dirua. “Askok deskofidantza azaltzen du emandako dirua iritsiko ote den ala ez. Nik gauza bat esaten diet: diru kopuru bat emateko gogoa baldin badaukazu eman,

ezin zara iritsiko ote den pentsatzen egon, bestela ez duzu emango. Kanpaina hau udaletxetik udaletxerakoa izango da eta konfidantzazkoa da. Mugaren Gainetik eta Onek Gobernu Kanpoko Erakundeak ere konfidantzazkoak dira, ordezkariak bidali eta banaketa nola egiten duten kontrolatzen baitute. Bestetik, Beasaingo udalak hartu du konprometua urteko aurrekontuaren %0,7a Esterilerak bidaltzeko”. Momentuan etxeak eraikitzeke dirua eta sendagaiak behar dituzte nikaraguarrek.

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak filtroak, olioak, engrasea frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57



MAPFRE

ASEGURU TALDEA

Eguberri zoriontsuak!

Pello Barandiaran

943 16 13 61
Hirigoien, 18
LAZKAO

“Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak”



K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
943 88 77 58	943 88 72 79	943 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA

Eider Otaegi legorretarra Mozanbiken

Eider Otaegi legorretarrak udako hiru hilabeteak Mozanbiken egin zituen, Maputo hiriburuan, kaleko haurrak biltzen zituen egoitza batean. Haurrak gizarteratzea du helburu egoitza honek. Bertan bizitakoa kontatu digu Eiderrek.


Eusko Jaurlaritzak herrialde pobreenetara borondatezko lankide edo kooperante bezala joateko aukera ematen du eta Eider Otaegi legorretarrak Afrikako Mozanbikera joan zen. Kaleko umeak biltzen dituen egoitzan lan egin zuen. 150 mutil zeuden bertan, arrazoi ezberdinegatik: umezurtzak zirelako, kalean abandonatuak izan zirelako edo etxetik alde egin zutelako. "Orain dela 5 urte bukatu zen gerra zibila. Batzuk umezurtzak dira edo gerraren ondorioz familiarekin harremana galduta dutenak. Kasu bat: amaren bularrean zegoen haur bat jaso zuten. Amak 3 egun zeramatzan hilda. Beste batzuk, familia handia direlako, amaordeak

ez dituztelako maite... egoera ezberdinetakoak daude", argitu du Eider Otaegik.

Monja salestarren esku dago kaleko umeen egoitza. "Beraientzako etxea da. Egoitza honetan ohea, janaria eta eskola ematen zaie. Trukean ordutegia, eskolorduak, lanak... errespetatu egin behar dituzte. Gizarteratzeko helburua du zentruak, pertsona arduratsuak eta errespetuzkoak egitea". Eiderrek haur etorri berriekin lan egin zuen, eskolan integratzeko. Ikasteko ordua ere izaten zuten gauetan eta han ere egon zen laguntzen.

Mutilak bakarrik zeuden egoitza honetan. "Daukaten esperientziagatik neskak eta mutilak egoitza berean egonda, neskak haurdun gelditzen dira. Neskentzako egoitzak ere badaude".

Gerraren ondorenak nabari omen zaizkie bertako haurrei. "Orain egoitza ondo dago, baina hasieran, kanpoan lo egin behar izaten zuten. Egoitza aurrera



ateratzeko lan asko egin behar izan dute eta gazte horiek aurrera atera direla ikusten da, egoitzan beste ardura batzuk dituzte. Baina egoitzara orain iristen direnak, oso biolentoak dira, oso hotzak. Haur bati emandako musua edo igurtzia, askok amaren musurik jaso ez dutenez, haurrari egiten zaion laztan normal hori, berotasun bat bezala hartzen dute. Berotasuna, zentzu lizunean. Gezurtiak ere badira. Kanean hazitakoak dira eta kaleko bizia horrelakoa da".

Eider egoitzara iritsi zenean, harritu egin omen zen, haurrak zigortzeko erabilitako moduarekin. "Egoitzara iritsi ginenean, ikusi genuen, haurrak zigortzea, janik gabe uztea zela. Hasieran oso gogorra egin zitzaigun, baina azkene-rako gu gogorragoak ginen, beste biderik ez dago. Beraiei mina egiten dien arlo bakarra, jana da. Jotzea ez da zigorra beraientzat, ondo iruditzen zaie jotzea, beraien legea hori delako".

Egoitzan, eskolaz gain, tailerrak eta baratza ere badituzte. Tailerretan egiten dituzten lan guztiak saldu egiten dituzte, jateko dirua lortzeko. "Guk proposatu genien, baratzetik ateratzen zutena saldu beharrean, gehiago landu eta janaria egoitzarako ateratzeko. Janaria oso garesti dago han. Guri kostatzen zaiguna kostatzen zaie. Hego Afrikatik ekartzen dute janaria. Orain ari dira piska bat lurra lantzen hasten".



**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Eguberri zoriontsuak!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arteak)
Tfnoa.: 943 16 11 05 BEASAIN

APURKA
OIHALAK KILOKA

Gabon zoriontsuak!

Jantziak neurritan (heldu eta haurrentzat)
Baita moztu eta probatu ere

San Inazio, 6 - A ☎ 943 889010 BEASAIN



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 66 55 61
BEASAIN

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA

THAILA Boutiquea

PORFIRIO FERNANDEZ Sastrea

HAIZPE Jatetxea

OSKI Oinetakoak

LURDES LASA Ileapaindegia

LUBERRI Loradenda

ARRIZUBIETA hortz klinika

NICK'S English Centre

ZURICH-VITA Aseguru taldea

Optika LARRAÑAGA

ARANTXA Mertzeria

JUBILATU ETXEKO Taberna

AXOLA Jantzidenda

IÑAKI Ileapaindegia

MARI JOSE Arraindegia

UNANUE Gozotegia

ARKUPE Tapiztegia

GAIR Aseguruak, C.B. IT-ERCOS

Labores AGUR

JOSUNE Estetika Zentrua

IBERDROLA

IZOTZ Izozkiak

Gabon zoriontsuak guztioi!!

**JOXE MIGEL BARANDIARAN PLAZAKO
DENDARIEN PARTEZ
ORDIZIA**



**BEASAINGO
UDALAK**



Bai *euskarari*

Bai XXI. mendeko akordioa**ri**

IKASTOLEN ELEANIZTASUNAREN PROIEKTUA SARITU DU EUROPAKO KONTSEILUAK: Ordiziako Ikastola aintzindari eleaniztasun proiektuan

1 991n Ordiziako Jakintza Ikastolak, beste 7 ikastolekin batera, eleaniztasun proiektua martxan jarri zuen. 4 urterekin hasita ingelera ikasten hasten dira ikasleak. Proiektu honek Europar Elkarteko kontseilu baten saria jaso du Madrilgo Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren bitartez. Mariaje Zufiria eta Ximon Idiakez ingeles irakasleekin izan gara proiektuaren eta sariaren nondik norakoak jakin nahian.

Erromako, Amnestardango eta Ingalaterrako unibertsitateekin batera daramate ikastolek eleaniztasunaren programa. Europako Elkarteko Socrates programatik jaso dute dirua proiektua eta materiala lantzeko. Orain Ikastolak sarituak izan dira, proiektua garatzeko materiala sortzeagatik. Atzerriko hizkuntzen lanketarako berrikuntza atalean eman diote saria. 4 urtetik 12 urtera bitartean bigarren hizkuntza, ingelera kasu honetan, irakasteko materiala prest dute ikastolek. Aurrera begira ere badute beste asmorik, Ximon Idiakez eta Mariaje Zufiria Jakintza Ikastolako ingeles irakasleek adierazi digutenez. "Lehen hezkuntzara arteko materiala eginda dago. Hurrengo asmoak dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) gai ezberdinetan gairen batean ingeleza lantzea eta bigarren ziklo batean, gai oso bat, ingelesez ematea. 4 urtetik eta 10 urtera arte, ipuinaren inguruan funtzionatzen du; 10



urtetik 12ra proiektu baten inguruan". 3 irakasle ari zuten dira ingeleza erakusten Ordiziako Jakintza Ikastolan. Ximon Idiakez eta Mariaje Zufiriarekin batera, Josune Arratibel. Momentu honetan, Josune ordezkatzten Ainitze Etxeberria ari da.

4 urterekin bigarren hizkuntza

Ikastolen eleaniztasun proiektu honekin, 4 urterekin hasten dira haurrak ingeleza ikasten. Proiektuaren oinarria zera da: hizkuntza bat erabiliz ikastea. "Erabiltzeko komunikazio guneak behar dira eta komunikazio horiek sortu egin behar dira. Ezin dira artifizialak izan", esan digute irakasleek.

Ipuinen bidez lantzen dute ingeleza. "Ikaslea ipuinean sartzen da, berari dagoen egoera batean, eta egoera horrek laguntzen du hizkuntza lantzen. Hori bai, haurrek uste dutenez, irakasleak euskararik ez du ulertzen. Txikiak ez dira konturatzen ingelesez ari direnik ere", argitu digu Mariajek.

Metodologia hitzez adieraztea nahiko zail gertatzen

da, baina Ximonek egin digu laburpentxo bat: "umeak ez du ezer izaten aurrean eta irakasleok antzeztzen hasten gara, ingeleza eta keinuak erabiliz. Umeak errepikatu egiten du, umea ipuin horretan sartu egiten da. Behin hiru bat lau aldiz antzeztuta, irudiak ematen dizkiegu eta kontatu egiten diegu ipuina. Gero haurra gai izango da ipuina ingelesez kontatzeko. Ondoren, ipuinean bizi izan ditugun egoerak errealtatean ere txertatzen saiatzen gara. 'Joan zaitetz hara!' agintzen badugu ipuinean, gero behar dugunean ere, errealtatean, horrela erabiliko dugu. Eguneroko bizipenak ere kontatzen ditugu klaseetan".

Gramatika, irakurketa eta idazketa lantzen beranduago hasten dira; bigarren mailan. "Lehenengo ahoz barnerratzten dute eta gero testu idatzietara pasatuko ginateke".

Ondorioak

Hasieran kezka izan ziren, bigarren hizkuntza hain goiz sartzeak, euskarari kalterik egingo ote zion. 8 urte badi-ra dagoeneko Ordiziako Ikastolan proiektu honekin hasi zirela eta hasiera-hasie-

ratik emaitzak oso emankorrak direla adierazi digu Mariajek: "bigarren hizkuntza sartzeak ez du inongo eragozpenik sortzen. Alderantziz, bigarren hizkuntza dutenak zertxobait hobeto dabilta erdararen ere, baita beste gaietan ere". Ikastetxez kanpoko adituek urtero laginak hartzen dituzte ikastetxean, eta azterketen ondorioek diotenez, "kalte baino gehiago, mesede egiten dio haurrari bigarren hizkuntza bat hain goiz sartzeak. Frogatuta dago elebidunek aurrerapen handiagoa dutela, bai bigarren hizkuntzan, bai bere hizkuntzan", gaineratu du Ximonek.

Irakasleen prestakuntza

Irakasleek lan handia egin behar izan dute materiala prestatu eta metodologia ondo barnerratzeko. Ingeles lantzeaz gain, aktore lana ere ikasi behar izan dute zertxobait. Ikastaro ugari egin dituzte eta orain ordiziarrek gainerako ikastoletakoei oinarriak ere azaltzen dizkiete, beste 7 ikastolekin batera, aintzindariak izan baitziren ordiziarrek proiektu honetan. Gaur egun 46 ikastola daude sartuta proiektuan.

Saria garrantzitsua izan da ikastolentzat. Mariaje Zufiria eta Ximon Idiakezek adierazi digutenez, sariak ilusio handia eman diote, lan asko egin baita. Era berean, "askotan ikastolak beste gauza askogatik ibiltzen dira ahotan, eta orain gari honengatik denon ahotan ibiltzea garrantzitsua da".

SEUR

☎ 902 10 10 10 ☎

Fakturazio lekua: AUTOETXE C.B.

Salbatore auzoa

10. poligonoa, 18. pabiloia
BEASAIN

ORDUTEGIA: 9:00etatik 13:00 etara
15:00etatik 18:45era

Eskaintza:

*iragarki hau eramanda
5 kilorarte dohainik
Gipuzkoa barruan.*

Martxoaren 15erarteko balioa du eskaintzak.

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

J. M. Barandiaran Enp. - ORDIZIA

Gabon zoriontsuak · Urte Berri On · Gabon zoriontsuak · Urte Berri On



 Prezioa 15.150 GABONETAN 12.125	 Prezioa 16.820 GABONETAN 11.900
 Prezioa 12.500 GABONETAN 8.900	 Ibiltariarentzako podometroa Prezioa 5.450 GABONETAN 3.575
 GABONETAN 5.710	 Baruko eta kanpoko termometroa, kable gabe eta erloju iratzargailua Prezioa 17.500 GABONETAN 12.200

Gabon zoriontsuak · Urte Berri On · Gabon zoriontsuak · Urte Berri On

OPARI DESBERDIN BAT EGITEKO MULTIOPTICAS-en IDEIAK



 Prezioa 14.580 GABONETAN 10.500	 Prezioa 14.280 GABONETAN 10.300
 Prezioa 14.580 GABONETAN 10.500	 Prezioa 17.340 GABONETAN 12.900



GABON HAUETARAKO OPARI EZAZU RAY-BAN

Belaurreko batzuk erostea gaitik "Definitely 1999" Agenda bat lortuko duzu

Abenduaren 18tik
urtarrilaren 3ra:

Eguberri



HITZA BIHOTZARI

ENSKARA BIZITZARI

MUSIKARIAK:

*Koldo Iparragirre
Tapia eta Leturia
Gozategi*

Kepa Junkera

Amaia Zubiria

Donostiako Orkestra...

SUKALDARIAK:

Martin Berasategi

Karlos Argiñano...

KIROLARIAK:

Abraham Olano

P. Ruiz Cabestany

Aitor Garmendia

Txomin Perurena

Jokin Mujika...



GOIERRITARRA aldizkaria lagundu,
urtean 1.500 pezetako kuota ordainduz.

Izen abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa.: Adina: .. NAN:


Lanbidea: Banketxea: Bulegoa:

Kodea: Kontu zenbakia:

'EGUBERRIZ, HITZA BIHOTZARI ETA EUSKARA BIZITZARI' KANAPINA: Beasaingo Ikastolaren eskutik ekitaldiz betetako 18 egun, gizartearen euskara sustatzeko asmoz

Beasaingo Ikastolak abenduaren 18tik urtarrilaren 3ra bitartean hainbat ekintza antolatu du Beasainen. 'Eguberriz, hitza bihotzari eta euskara bizitzari' lemapean. Helburu ekonomiko ez gain, gizartearen euskara suspertzea du helburu kanpainak. Ekitaldi batzuk herriko leku ezberdinetan egingo dira, baina gehienak, Bernedorenean jarriko duten karpan izango dira. Euskal Herriko punta-puntako kirolariek punta-puntako saioak egingo dituzte. Kantariak ere puntakoak izango dira. Bertsolariak ere beste hainbeste. Erakusketak, azokak, Martin Berasategi eta Karlos Argiñanok prestatutako afaria, Gabon kantuen jaialdia, patata tortila erraldoia...

Duela 3 urte sortu zen Beasaingo Ikastola. Hasi berriek izan ohi dituzten arazo ez gain, zenbait dirulaguntza atzeratu egin zaizkie. Hori dela eta, Tere Irastorza Ikastolako zuzendariak aitortu digunez, "horrek ekarri digu lehenaz gain egoera ekonomikoa zailtzea". Egoera



honetan, 18 egunez, ekitaldi ugari antolatu dute, 'Eguberriz, hitza bihotzari eta euskara bizitzari' kanpainaren barruan.

Helburu ekonomikoak edukitzeaz gain, ordea, badu beste helburu bat 'Eguberriz, hitza bihotzari eta euskara bizitzari' kanpainak: euskararen presentzia gizartearen areagotzea. "Alde horretatik, beharrezkoa ikusten genuen alde batetik, punta-puntakoa jende etortzea eta bestetik, barruko jendearen inplikazioa. Hori dena lortzeko, ekintza asko denbora askoan egin behar zirela ikusi zen. Orain arte bezala, guk uste dugu Ikastolak gizartearen eragina izan behar duela, eta hizkuntza ez da aurrera aterako ikastetxe barruan egiten denarekin bakarrik, baizik eta gi-

zartearen sortzen den mugimenduarekin. Gizarte guztia inplikatzeko beharrezkoa da", esan digu Irastorzak.

Gizartearen inplikazioa lortzen saiatu dira Beasaingo Ikastolakoak eta bai herrian, bai kanpion, oso harrera ona izan omen dute. "Segurasko gure helburua ekonomikoa bakarrik izango babiliz, ez genuke helburu hori lortuko. Herri mailan horrelako inplikazioa lortzea ere nahi genuen. Dendariak, Ostadar dantza taldeak, Koldo Iparragirre trikitilariak, gazteak, San Inazio kaleko koadrilak... parte hartuko dute. Harrera ona izan du kanpainak honek herrian. Goierri mailan enpresa asko dira diruz lagunduko dutenak. Beasaingo jendeaz gain, beste jende asko ere ikutuko du ekintza honek". Nolabaiteko beroketa edo entrenamendua ere izango da kanpaina hau Tere Irastorza aitortu digunez. "Kilometroak 2001. urtean Beasainen egiteko eskatuta daukagu, eta apustu bat ere bada. Ikastola txikia gara, Kilometroak antolatzeke jende asko behar da, inplikazio handia, dudarik gabe, horrelako ekintza bat, nolabaiteko prestakuntza bat da".

Punta-puntako ekitaldiak

Punta-puntako ekintzak antolatu dituzte (koadroan duzue egitarau zehatza). "Gure Ikastolaren proiektuaren ondorioa da, norberak daukan onena eman, gauzak hobeto ateratzen direla. Apustuak zerbaiten alde eginez gauzak hobeto ateratzen dira, apustua zerbaiten kontra eginez baino. Askotan gizarteak, ikasleak... punta-puntako pertsonaien erreferentzia izaten du. Baina bestetik demostratzen dugu, bakoitzak daukan onena eman behar duela, baina ez bakarrik bere alde, baita euskararen alde, gizartearen alde. Garrantzitsua da ia antolaketa guztia Ikastola bertako jendeak egin duela".

2.700 metro karratuko karpa jarriko dute Bernedorenean. Ekitaldi nagusiak bertan egingo dira. Karparen barruan, jatetxea, kafetegia, taberna, haurtzaindegia, informazio aretoa eta prentsa bulegoa egongo dira.

Karpan sartzeko ez da sarrikerarik ordaindu behar, nola eta. ekitaldi jakin batzuetarako ez den. Sarrerak aurrez erosi ahaliko dira eta zenbait bono ere aterako da: helduentzako, gazteentzako, umeentzako eta bazkideentzako.

UNANUE
UME JANTZIAK
Puerikultura
Nafarroa Etorbidea, 4
Tfnoa.: 943 88 71 94
BEASAIN

GEMA
OINETAKOAK
Gabon zoriontsuak !
Nafarroa Etorbidea, 7
943 88 94 45 BEASAIN

Labores Otea
Gurutze-puntua, puntu erdia eta artiletan berezitasuna
Bordatuak eta arropa konponketak egiten dira
Andra Mari, 1 943 16 23 84 BEASAIN

Abenduak 18, ostirala:

Arratsalde: Euskadiko beteranoen Futbol Selekzioaren entrenamendu ofiziala.

20:00etan: Eguberri: arte-egarriz Euskal Herriko artisten erakusketaren irekiera. 39 artisten lanak ikus eta eros ahal izango dira, urtarilaren 3a bitarte.

21:00etan: Antzizar taldearen arkuzko tiro taldearen ikuskizunarekin hasita, inaugurazio ekitaldia. Bertara hurbilduko dira ekintzotan parte hartuko duten kirolariak, musikariak...Tapia eta Leturia trikitilariak alaitua.

22:30ean: Pilota partidua, Lau t'erdi barruko txapelketako partidua: Eugi eta Goñi, Antzizar kiroldegian. Bigarren partidua, Zezeaga-Capellan eta Lasa-Etxanizen aurka. Bernedoreneko karpan pantaila erraldoia egongo da.

Abenduak 19, larunbata:

10:00etatik aurrera: Merkatarien Eguberrietako Azoka berezia.

14:00etan: Euskal Kalitatezko Labela duten produktuen dastaketa.

19:30ean: Donostiako Akordeoi Orkestraren kontzertua, Mikel Bikondoak zuzendua.

Abenduak 20, igandea:

10:00etatik aurrera: Merkatarien Eguberrietako Azoka berezia.

11:00etan: Txirrindulari froga, tandem eran. Tandem bakoitzak partaide izango dira profesional bat eta profesional ohi bat (Abraham Olano, P. Ruiz Cabestany, Txomin Perurena, Aitor Garmendia, Jokin Mujika...), Ezkiaga auzoan. **13:00etan:** Oroigarri banaketa txirrindulari artean.

12:00etan: 600 kiloko tortila erraldoia, Juan Tapia trikitilari eskolakoek alaiturik.

20:00etan: Beasaingo Musika Eskolako Akordeoi Orkestra, Abesbatza eta Bandaren kontzertua.

Abenduak 21, 22, 23, 24 eta 25ean: Umeentzako topagune eta jolas-parkeak: pailazoak, musika, puzgarriak, eskulanak, kirolak, umeentzako bazkari eta meriendak.

Egitaraua egunez egun

Abenduak 23, asteartea:

20:00etan: Saskibaloia: Askatuak eta Goierriko selekzioak aurrez aurre, Antzizar Kiroldegian.

Abenduak 23, asteazkena:

14:30ean: Pailazoak: Kiki, Koko, Moko eta Flash.

18:00etan: Gabon kantuen jaialdia.

Abenduak 25, ostirala:

Arratsaldean: Etzakit eta Koldo Iparragirren kontzertua.

22:00etan: Dantza ikuskizuna, Ostadar dantzataldeak eskainia.

23:00etan: Hechos contra el decoro, Pi-lt eta Koma taldeen kontzertua.

Abenduak 26, larunbata:

10:00etan: Euskal Herriko artisauen azoka.

Arratsalde partean, igandeko auto-lasterketan parte hartuko duten autoen erakusketak, Artzai-enean.

21:00etan: Martin Berasategi eta Karlos Argiñanok prestatutako Euskal Kotiloia.

23:30ean: Jaialdia: Kepa Junkera, Amaia Zubiria, Gozategi eta Ur da lur.

Abenduak 27, igandea:

10:00etan: Auto-lasterketa, Erauskin auzoan, besteak beste Andres Vilariño eta Aitor Zabaletaren parte hartzearekin.

17:00etan: Beteranoen Futbol partidua Euskadi eta Kataluniako selekzioen artean, Loinatz futbol-zelaian. Entrenatzaileak Placido eta Alberto Ormaetxea. Bisitaria Javier Clemente.

Abenduak 28, 29, 30, 31: Gizaldi baten historia eta eboluzioa, jolasen eboluzioa 16:00etatik 18:00etara: arku-tiraketa tailerra, txotxongilo-tailerra, malabarismo-tailerra, trial eta trialsin ikuskizunak, kirol-tresnak, komunikabideak, altzariak, lokomozioa.

Urtarrilak 1, ostirala:

9:00etan: Mendi irteera Usurbeko gurutzeraino, mendizale ospetsuen laguntzarekin (besteak beste, J.R. Agirre, Iñurrategi anaiak...). Irteera Urbialde enparantzatik.

Arratsaldean: Arrokdromoa eta gomina egiteko aukera.

22:00etan: Kantaldia: Benito Lertxundi eta Antton Valverde.

Urtarrilak 2, larunbata:

Euskal komunikabideen erakustazoka: bertan parte hartuko dute euskaraz lan egiten duten aldizkari, irrati, telebista eta egunkariak. Eta Interneten dituzten loturak erakutsiko dituzte. Besteak beste, Argia, Euskaldunon Egunkaria, Elhuyar, GOIERRI-TARRA, herri aldizkari eta telebistak, irratia, etab.

22:00etan: Ehun urte berrehun bertso, berso jaialdi berezia: Narratzaileak: Xabier Euzkitze eta Joxerra Gartzia; Bertsolariak: Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Miren Bilbao, Iñaki Murua, Mikel Mendizabal eta Jon Sarasua; gidoia: Andoni Egaña; musika: Aitor Sarriegiren prestaketa, Izaro Garmendia eta Juantxo Zeberioaren egokitzapenak; musikariak: Pello Ramirez, Izaro Garmendia, Juantxo Zeberio eta Edu Salvador.

Urtarrilak 3, igandea:

Euskal Herri osoko ikastoletako ordezkarien topagunea.

Goizean: Koldo Iparragirren Trikitilari Eskolako kalejira. Zubieta eta Baztango Zarpantzarren kalejira.

14:00etan: Eguberri: arte egarriz. Euskal Herriko artisten lanen enkantea.

17:00etan: Herri kirolak: Orio eta Castroko traineruen arteko frogak, ergometrozt neurtua; Ingalaterra-Suitza-Euskal Herri arteko sokatira frogak, emakume eta gizonetakoetan; Iñaki Perurenak bere semearekin batera jarri nahi duten errekor berria: 444 kilokoa; Mikel Mindegia eta Donato Larretxea eta Jose M. Olasagasti eta Angel Arrospideren arteko norgehiagoka.

**ORKI
OPARIAK**

Gabon zoriotsuak!

Nafarroa Etorbidea, 5



☎ 943 88 10 50

BEASAIN



San Inazio, 2
Errementari, 5

BEASAIN
TOLOSA



**GEUK
DISEINATUTAKO
ATERKIAK**

☎ 943 16 09 65

☎ 943 67 41 43

- POLTSAK
- ATERKIAK
- BIDAI ARTIKULUAK
- MARROKINERIA
- GERRIKOAK ETB.

BEASAINGO IKASTOLAK ANTOLATUTAKO EKITALDIEN BARRUAN SASKIBALOI PARTIDUA

Goierriko selekzioa eta Askatuak nurrez nurre

Abenduaren 23an, arratsaldeko 8,00etan, Beasaingo Antzizar Kiroldegian Goierriko saskibaloia selekzioa eta Askatuak lehiatuko dira. Hau dela eta, antolatzaile taldekoa den Joxe Ramon Anunzibai eta Beasaingo BKLko entrenatzaile eta selekzionatzaile lana egingo duen Gorka Nuñezekin hitz egin dugu.

- Zer dela eta antolatu duzue partidu hau?

- Beasaingo Ikastola Eguberri ingururako antolatzen ari den kultur eta kirol mailako ekitaldien barruan saskibaloia ere lekua egitea pentsatu zen. Batez ere, ikastolako haurrekin saskibaloian egiten den lanari jarraipena edo nolabaiteko bultzada emateko.

Ahalik eta ikuskizunik handiena egitea genuen helburu. Horrela, lehenik Tau Baskonia ekartzea pentsatu genuen. Horrelako taldeek egutegia ondo lotuta izaten dute eta bagenekien oso zaila izango zela. Hala ere Ke-rejetarekin hitz egin eta saiatu ginen, baina alferrik izan zen. Ondorengo taldea Askatuak zen eta hauek lehen unetik prest azaldu ziren. Beraiek egun egokiena aukeratzea izan zen jarri zuten baldintza bakarra. Aurkako

talde bezala, ikusi genuen aukera ederra zela Goierriko selekzioa osatzeko eta horrelaxe egin genuen. BKLren esku utzi genuen eta hauek Ordizia eta Urretxuko Goierriarekin hitz egin eta denak prest azaldu dira.

- Nola osatuko duzue selekzioa?

- Dauden jokalarien arabera egingo da selekzioa. Kontutan hartu behar da Eguberri inguru honetan jende asko kanpora joaten dela. Ahalik eta talde berdinduena egiten saiatu naiz, baina Ordiziako entrenatzaileak dimititu egin du eta beraiekin hitz egiteko arazoei nabilen arren zurrerik 6 Beasaingo, 4 Urretxuko eta 2 Ordizikoekin osatuko dut selekzioa.

Ordizia 2. mailan dago eta BKL eta Goierri autonomikoan. Oso aukera ona da 3 taldeen arteko harremanak estutzeko. BKL eta Goierri artean harreman ona dugu, baina Ordiziarekin be-

tiko norgehiagoka hori dela eta ez dugu harreman gehiegi. Hala ere jokalarien artean oso giro ona daukagu.

- Bi taldeen artean dagoen maila ezberdintasuna nabarituriko al da?

- Bai zera, gu hobeak gara! Ez, batez ere altura desberdintasuna nabarituriko da, taulapean beraiek gehiago


dira. Teknika mailan ez da nabariko, hemen jokalaria onak daude, baina altuera falta zaigu.

Helburua batez ere giroa jartzea da, eta hemengo jokalariek maila handiagokoen aurka jokatzeko aukera izatea. Baina ez da txantxarik izango, duten guztia emango dute. Ikus dezatela hemen ere maila ona dagoela.

- Ze maila dago Goierin? Jokalaria onak ateratzen al dira?

- Harrobi ona dago. Neska-mutiko onak daude. Baina Gipuzkoan beti egon da joera selekzioak Donosti ingurukoekin osatzeko. Eliteko taldeak ere inguru horretan daude eta beraientzat errazagoa da desplazamenduengatik etabar, inguruko gazteak hartzea. Goierriko batek selekziara joateko oso ona izan eta asko destakatu behar du. Jokalaria onak baditugu ere, ez dira trebatzen eta ez dira aurrera ateratzen. Beheko mailatan Donostialdekoek ez dute hemengoek baino gehiago demostratzen.

Orain bi jokalaria ditugu selekzio juniorrean: gizon-zekoetan Pablo Garrido eta emakumezkoetan Neguri Zabaleta. Hori hemen ez zen aspaldi gertatu. Hautatzaileekin hitz egin beharra izan nuen aukeratu ahal izateko, bestela alferrik da.



Gorka Nuñez eta Joxe Ramon Anunzibai.

Hautatuak:

Beasaingo BKLtik:

Gorka Alarzia
Jon Lekuona
Aritz Ramirez
Jose Ignacio Pascual
Luis Eduardo Pascual
Egoitz Badiola

Urretxuko Goierritik:

Sergio Galdeano
Jokin Zubeldia
Xabier Sodupe
Joseba Zaldua

Ordiziako partaideak

oraindik zehaztu gabe daude.

MIRENTXU

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA

Gabon zoriontsuak denoi!

Nafarroa Etorbidea, 7

☎ 943 88 04 55

BEASAIN

Kale Nagusia, 1

☎ 943 88 14 57

GABONETAN:

● JAIOTZAK

● GABONETAKO
APAIINGARRIAK

● OPARIAK

BEASAIN

600 kiloko patata tortila Guinnessera



550 kilogramo patata, 125 kilo tipula, 10 kilo gatza eta 4.000 arrautza izango dira San Inazio koadrilak hilaren 20an erabiliko dituen osagaiak. Hori guztia 600 kiloko patata tortila bat egiteko, eta modu horretan munduko marka hobereenak jasotzen dituen Guinness liburuan sartzeko. Beasaingo Ikastolak antolatu duen ekitaldia izango da, gabon hauetarako antolatutako beste hainbat bezala, ikastolaren aldeko dirua ateratzeko. Igande honetan, tandem txirrindu frogaren sari banaketa egiten den bitartean, 13:00etan, Ikastolak Bernedon jarriko duen karpan salduko dira tortila erraldoi honen pintxoak.

Bernedorenean bertan egingo du San Inazio koadrilak tortila karpatik kanpo, eta gero traktore batekin sartuko dute barrura. Kanpoan daudela euria egiten badu estalki bat jarriko diote zartagiari. Metro t'erdiko diametroa duen zartagia erabiliko dute. Tortilaren prestaketa bezperan hasten da: patatak zuritu eta tipula prestatu. Igandean goizeko 9ak aldera sua pizten hasiko dira San Inazio koadrilakoak. Egurrikatzarekin egingo dute sua, soldagailu batez lagunduta. Unerik ikusgarriena eta

arriskutsuena gutxi gora behera 12:30etan izango dela iragarri dute, buelta emateko unean. Tortila alde batetik egiten denean, zartagia tapa handi batez itxiko dute; grua batekin altxatu, sokak aldamenetan lotu eta, bat goitik eta bestea azpitik, beste aldera pasatuko dituzte. Dena prest dagoenean sokak eusten dituztenek indar handiz tira egin eta buelta erdia emango diote 35 zentimetroko altuera izango duen tortilari. San Inaziokoek adierazi zuten hori da une larriena, bertikalki denbora gehiegi egoten bada, dena beheko aldera jaisten delako.

25 urte

San Inazio koadrila osatzen duten 25 lagun inguruk hartuko dute parte. Ez da gauza berria beraientzako. Datorren ekainaren 5ean lehen tortila erraldoia egin zuteneko 25 urte beteko dira; Olanoko zelaia zen lekuan egin zuten 1973an. Lagun artean sortutako ideia izan zen, festetan herriari ikuskizun bat eskaintzeko asmoarekin. 20 urte inguru zituzten orduan, eta osagaiak nork emango bila hasi ziren. Igande honetan Ikastolarentzako egingo duten tortilarentzako osagaiak ere borondatez emandakoak izango dira: arrautzak Gipuzkoako Arrautzak

Udalak ere 'Bai Euskarari'

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak antolatu duen 'Bai Euskarai' kanpainarekin bat egin du Udalak euskararen normalkuntzaren alde. Bategite hori herrian kartelak jartzea debekatzen duen ordenantza baten ondorioa izan da. Debeku hori zela eta, 'Bai Euskarari' kartelak jartzeko hauteskudenen ondoren alderdi politikoentzako dauden oholak aprobetxatu nahi izan ziren, baina talde gehiagok ere leku hori eskatu zutenenez denei ezetz esatea erabaki zen. Ondorioz, Udalak 'Bai Euskarari' kanpainaren aldeko zerbait egin behar zuela ikusita, eta nahiz eta Kontseiluaren egitasmoa politikariei zuzenduta ez egon, bere jarrera aldekoa dela azaltzeko 'Bai Euskarari' kanpainarekin bat egin du Euskara Batzordearen bitartez.

emango ditu, eta patata Arabakoa izango da.

Igandean patatak frijituta eramango dituzte; 70. hamarkadakoak egiteko, ordea, bezperako gaua patatak zuritzen iragan behar izaten zuten, eta gero frijitzen, zartagialdi bakoitzeko bi edo lau kilo patata egiten zituztelarik. Denen artean egiten dute tortila, nahiz eta bakoitzak bere pausoak izan. San Inaziokoek adierazi zuten ez zuten arrautza mugitzeko beraiek prestatutako zurezko arrauenez baliatuko dira, eta txandakatu beharra izaten dute.

1973. urtez geroztik hainbat aldiz errepikatu dute errezeta bera: 1978. urtean Donostian, 1979an berriz ere Beasainen, 1980.enean Tolosan Kilometroak jaiaren barnean (argazkia ordukoa da), eta baita ere orain bi urte. Dax-en egin izan dute, eta Ipar Euskal Herrian ere izan dira, Hendaian hain zuzen ere 1977. urtean. Arrakastatsua hori izan omen zen San Inaziokoek diotenez. Propaganda asko egin zieten. Rugby zelaian egin zuten, eta tortila ikusteko 10 libera (250 bat pezeta) ordaindu behar ziren, eta dastatzeko beste bi. Saltzen jarri eta ordu laurden batean

bukatu zen tortila, eta sarreara ordaindu zuten batzuk zartagia hutsik bakarrik ikusi ahal izan zuten.

Orain dela ia 25 urte Beasainen egin zutenekoan ere pintxoak salmentan jarri zituzten, borondatea kobratuz, jubilatuei bidaia oparitzeko asmoz. Orduan, ordea, 100 pezeta besterik ez zituzten jaso tortilarekin; dirua, 200 litro ardo eta zurrapapotearekin atera zuten.

Marka hobereena: 250 kilo Valentzian

Abenduaren 20an eskribau bat ere izango da Bernedoreneko zelaian 600 kiloko tortila Guinness marka hobereen liburuan erregistratzeko. Momentuz handienaren errekorra Valentzian dute 250 kiloko tortilarekin. Japonian 15.000 kiloko antzeko beste batzuk egiten omen dituzte, baina zartagiari buelta eman gabe eta patatarik gabe. San Inaziokoek orain arte egin dituzten patata tortilak 500 kiloko ingurukoak izaten ziren, baina inoiz ez dituzte erregistratu. Oraingoan, ordea, izango dute horretarako aukera, eta Guinessean sartzeko espero dute.

Jon Ordoñez Garmendia

OLABERRIA

Herrian hiru talde arituko dira abenduaren 24an, gabon kantua abestuz.

Herri eskolako haurrekin batera, 3-10 urte bitarteko haurrek, nahi duten guztiek, ere gabon kantuan ateratzeko aukera izango dute. Goizez arituko dira, 10etatik aurrera. Entseiuak 21ean, 22an eta 23an egingo dira.

Aurten 11-16 urte bitarteko gaztetxoak ohiko Olenzero taldearekin arituko dira, baina arratsalde partean soilik. Eguerdian denak Ar-

kupen elkartuko dira bazkaltzeko.

Azkenik, Gabon gaua ospatuz ekitaldi berezia egingo da aurten: sua (neguko solztizioa gogoratzu) eta Olenzero pertsonaia mitiko erabiliz. Hau iluntzeko 7ak aldera izango da, kaskoan.

Haur eta gaztetxo-entzako tailerrak

Abenduaren 28, 29, 30 eta 31n burutuko dira haur eta gaztetxoentzako gabonetako tailerrak. Bi talde izango dira:

3-10 urte bitartekoek hainbat joku, eskulan eta festa burutuko dituzte, Eskoletan.

11-16 urte bitartekoek, eskalada, txalaparta, kamiseta tintaketak... izango dituzte udal pilotalekuan eta ludotekan.

Jubilatuventzat txistorra jana

Arkupe elkarteak urtero bezala, Santo Tomas eguna ospatuz, datorren igandean, abenduak 20, eguerdiko 12-etan, txistorra eta salda ba-

natuko ditu herriko jubilatuen artean.

Hitzaldia

Amaia Vazquez psikologoak gurasoei zuzendutako 'Haur hezkuntzari' buruz ematen ari den hileroko hitzaldien artean, datorren abenduaren 21ean, arratsaldeko 2,30-etan, emango duen hitzaldia, 'Ardura eta askatasuna: hezkuntz arazoak' izango da.

LEGORRETA

Udalak, Bilkoin eta Jota Kea elkarrekin laguntzarekin Ertamerikari laguntzeko ekitaldi berezia antolatu zuen hilaren 7an. Legorretarrok nahi adina gaztaina eta sa-

gardo dastatu ahal izan genuen dohanik. Diru bilketa edalontziei esker egin zen, 200 ptaren truke erosi baizitezkeen. 250 kilo gaztaina erre zituzten Pagosako labe-

an eta plazan bildutako jende mordoakari esker 79.015 pta. bildu zituzten.

Gasolindegia berria

Udalak Gaikau aldean gaso-

lindegia berri bat egiteko proiektua onartu du. Bertan sei herritarrei lanpostua emateko asmoa dago.

Josune Amondarain

Ertamerikarako laguntza

ARRIETA

Eguberri zoriontsuak
ofa dizkizuegu!

J A T E T X E A

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Gabon zoriontsuak denoi!

Arantxa
ILEAPAINDEGIA

Urdaneta, 42 - behea
☎ 943 88 19 50 ORDIZIA

Oiarbide

Oinetakoak
Eguberri zoriontsuak denoi!

Laskurain, 12 ☎ 943 65 37 86 **TOLOSA**
San Inazio, 14 ☎ 943 16 04 34 **BEASAIN**

ERROTA
OINETAKOAK - POLTSAK
OSAGARRIAK

Eguberri zoriontsuak denoi

San Inazio, 2
☎ 943 88 11 75
BEASAIN

LOPETEGI
AUTO ESKOLA

GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK

Igartetxe, 2 ☎ 943 88 21 74 **BEASAIN**
Oria Kalea, 14 ☎ 943 65 11 17 **TOLOSA**

ZALDIBIA

Abenduaren 2an Zaldibiako udaletxean ospatu zen udal batzar berezian gai ordenean zeuden hiru mozio onartu ziren. Hirurak ere, bertan zeuden zortzi zinegotzien (HB-koak 5 eta ZUTekoak 3, HB-ko zinegotzi bat falta zen) baiezkotoekin onetsi ziren.

Gai ordenaren arabera lehenengo onartu zen mozioa Senideak-ek proposatutakoa izan zen. Honen arabera, Zaldibiako udalak "askatasuna debekaturik duen pertsona orok dagokion zigorra bere inguru familiar eta sozialeko espetxean betetzeko eskubidea" duela azpimarratzen du. Mozioaren lehenengo puntuaren arabera, bestalde, "zigorraren hiru laurdenak beteak dituzten euskal presoak beti ere espetxeko irizpide erregresiborik ezarri ez bazaie, askatasun baldintzatuan egoteko eskubidea dute. Era berean, gaixotasun sendaezinak dituzten presoek berehalako askatasuna eskatzen da, legediaren 92. artikulua aplikatuz".

Bostgarren puntuari dagokionez, Gasteizko Lege-



biltzarrari eta Iruñeako Parlamentuari gai honen inguruan beraien ahaleginak areagotu ditzatela eskatzen zaie. Eta azkenik, urte zahar egunean izango diren mobilizazio ixiletan beraien partaidetza ziurtatu dute Zaldibiako udaleko zinegotziek.

Bigarren mozioa Txo-Hiesa batzordeak proposatutakoa da. Erakunde honek "Gib/Hiesdun gizakien eskubide unibertsalen adierazpena" aurkeztu zuen. Adierazpen honetan Gib/Hiesdun gizakien aurkako eraso diskriminatzileak gaitzesten dira eta hala nola, beraien osagile laguntzarako eskubidea aldarrikatzen da, konfidentzialtasuna ahaztu gabe.

Udal batzarra

Kultur ekintzak abenduan

Abenduak 17, osteguna, arratsaldeko 5etan, Kultur Etxean, 6-9 urte bitarteko haurrentzat, Arrate Leundarekin Ipuin Tailerra.

Abenduak 19, larunbata, gaueko 10etan, antzokian, 'Barrenkaleko bluesak', 7 Eskalaren saioa.

Abenduak 21, astelehena, iluntzean Santo Tomas eguna, Zaharren Egoitzan, Beti Gazte elkartearen antolatutako txistor jana.

Abenduak 28, astelehena, arratsaldeko 4:30etan, Latxaga taldearekin haurrentzako karaokea eta gabon kantak.

Abenduak 30, asteazkena, arratsaldeko 4:30etan, Txan Handia magoaren saioa.

Urtarrilak 4, astelehena, arratsaldeko 4:30etan, Kultur Etxean, Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa.

Abenduak 28, 29, 30 eta urtarrilak 4 eta 5, goizeko 11etatik 13etara, 7-11 urte bitarteko haurrentzat, Kultur Etxean, plastika tailerra. (matrikula 1.000 pezeta).

Antolatzaileak: Beti Gazte elkarte, UEMA eta Zaldibiako Udala.

Oharra: Zaldibiako Herri Ekimenak Eguberri jaietan 'Euskal Presoak Euskal Herrira'ko oihalak balkoietan jartzeko gonbitea luzatzen dizue.

Onartutako hirugarren eta azken mozioak Euskal Fondearen partehartze aktiboa berresten du tokian tokitik "Mitch hurakanaren" zorigaiztoko ondorioak jasaten ari diren herrialdeei laguntzearen.

Hiru gai hauez gain ondorengoak ere jorratu ziren

udal batzar honetan: hala nola, Bilore S.A.-k herrian sortzen duen kutsadura, kalea urbanizatzeko obren espedienteak, ur-hornidura proiektua eta hurrengo urterako aurrekontua.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*

PEAGE

ZURE BAKERO DENDA

Levi's
Bonaventure
Replay
Guess
Liberto

Korreo, 25 | Garibai, 6 | Nagusia, 42
TOLOSA | DONOSTIA | BEASAIN

GOIERRITARRA



943 88 96 12

J. ARANBURU

OINETAKOAK

*Gabon zoriontsuak opa
dizkizuegu guztioi!*

Kale Nagusia, 36

☎ 943 88 01 27 **BEASAIN**



ELECTRO ORIA

SALMENTA - ZERBITZU TEKNIKOAK

Tfnoa. eta Faxe: 943 16 05 33

Kale Nagusia, 29 - BEASAIN



SATELITE BIDEZKO ANTENAK
TELEFONO MUGIKORRAK
AUTO-IRRATIAK

SATELITE VIDEO-HIFI
CANAL DIGITAL TB-ak

IDIAZABAL

Gabonetarako astebete falta da eta aurren ere Olentzerok Idiazabala bisita egingo duela jakin du GOIERRITARAK. Olentzerori behar bezalako harrera egiteko Parrokiko korua eta txistulariak batetik, eta Gazte Asanblada bestetik, hilaren 24rako prestakizunetan ari dira.

Azken urtetako ohiturari eutsiz, herriko abesbatzak eta txistulariek kontzertua eskaniko dute herriko plazan arratsaldeko 6etan hasita. Gabonetako doinuak eta bestelakoak entzuteko aukera izango da. Eta kontzertua amaitzerako espero da Olentzero herrira iristea. Gazte Asanbladakoek egin dute zita ikazkin zaharrek. Bazkalondan abiatuko dira Gazte Asanbladakoak baserri-baserri kantuan aritzeko.

Goizean, Herri Eskolako ikasleak ibiliko dira herriko kaleetan barrena kantuan.



Bai euskarari

Euskararen Kontseiluak antolatuta hilaren 26an Euskal Herriko bost futbol zelaitan egingo den ekitaldira joateko autobusa antolatzen ari da herrian sortu den taldeak. Idiazabaldik abiatutako autobusa Donostiako Anoeta futbol zelaira joango da.

Senideak taldearen mozioa

Euskal Presoak Gabonetarako Euskal Herrira ekartzeko eskatuz Senideak taldeak aurkeztutako mozioa onartu du Udalak. Azaroko plenoan ahobatez onartutako mozioak eskari hirukoitza egiten du: lehena, euskal presoak

Badator Olentzero!

Euskal Herriko espetxetara ekartzea; bigarrena, zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoak libre uztea eta hirugarrena, gaixotasun sendaezinak dituzten presoak aske uztea.

Badminton ikastaroa

Abenduaren 28, 29 eta 30erako Badminton ikastaroa antolatu dute Kiroldegian. Ordu t'erdiko saioak izango dira eta horietan parte hartzeko baldintza bakarra 14 urtetik gora izatea da. Kiroldegitik jakinarazi denez kirol hau ezagutzera eman nahi da herrian. Kiroldegian duzue informazioa gehiago.

Kiroldegian bertan egiten dira asteartero eta ostiralero (arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara) Yoga saioak. Saio horiek hilaren 30ean bukatuko diren arren, jendearen eskariz urtarilean berriro ere martxan jarriko dira. Urte berrian saio horietara joan nahi duenak Kirolde-

gian eman dezake izena.

Laburrean

● Herriko liburutegiko liburuak berriro edota berriak erosteko 186.516 pezetako dirulaguntza eman du Eusko Jaurlaritzak.

● Nikaraguan daude dagoneko herrian bildutako 4 milioiak. Eurne Aranburuk Gobernu Kanpoko Erakunde baten bidez banatuko du dirua, ondoren dirua zertarako erabili den azalduko dio Eurnek Udalarri.

● Herriko kaleak eta herri inguruko lekuak bilduz bi mapa egiten ari da Udal. Udalerriko plano kanpoko enpresa batek egingo du, herriko plano topografikoa, berriz, Antonio Berasategi ari da egiten.

● Kultur Etxea itxita egongo da Gabonetako oporraldian.

Xabier Urteaga

ZEGAMA

Abenduaren 14tik 20ra bitartean Aizkorri Jubilatuen Elkarteak antolaturiko hainbat ekintzetan parte hartzeko aukera paregabea izango da.

Atzo, abenduaren 14an, eman zitzaion hasiera, bingo, mus, tute eta antzeko jokuetan lehiatzeko aukerarekin.

Abenduaren 15ean, Julian Bereziartua medikuak 'Elikadura eta sabeleko gaitzak' gaia hartuta hitzaldia emango du. Abenduaren 16an, hizlari beraren eskutik, 'Elikadura eta hezurretako junturen gaitza' gaia aztertuz bigarren hitzaldia

emango da. Bi egunetan elkartzeko ordua arratsaldeko 5etan izango da.

Abenduaren 17an, ostegunean, jokuen finalerdiak jokatuko dira; finalak 18an izango dira.

Larunbatean, abenduaren 19an, arratsaldeko 5etan, Pello Zabala frantziskotarrak 'Tenporak' gaitzat hartuta hitzaldia emango du. Ondoren txapelketako sari banaketa, txistorra jana eta gabon saskiaren zozketa egingo dira.

Igandean, eguerdiko 12etan, hildako meza ospatuko da jubilatuen alde.

Ekintzaz beteriko abendua

Ikusentzunezkoak

Abenduaren 16an beste ekitaldiekin batera, Kultur etxean Jabier Juanesen 'Gipuzkoako jaiak: udazkena eta negua' izenburua duen ikusentzunezkoaz gozatzeko aukera izango da iluntzeko 8,30etan. Ikusentzunezkoan Gipuzkoako zenbait herrietako festak ezagutzeko aukera eskaintzen da, horien artean Zegamako San Martinak ere aipagai dira.

Olentzerorekin irteera

Gabonak gainean ditugula eta, urteroko ohitura mantendu nahian, abenduaren

24an, goiz zein arratsalde izango dira irteerak. Lehenik Aitxuri herri eskolako haurrak ibiliko dira kaleetan zehar goizeko orduetan.

Beste aldetik, eguerdiko 2,30etan elkarturik, baserrietara Goialdera zein Barrerndera joateko parada izango da. Baserrietatik herriarabatu arratsaldeko 6etan Olentzerorekin kalean bat egingo da, herrian zehar gabon abestiak kantatuz eta umore onari eutsiz.

Maidar Azurmendi

ORDIZIA

Ekintzaz beteta datozkigu gabonak

Gabonak hortxe ditugula eta, egitarau oparoa antolatu du Udalak herriko kultur eta kirol elkarteekin batera. Egunok, jai egunak izaki askorentzat, asti librez beterikoak dira eta, hau dela eta, jendeak izango du zer egin eta zer ikustekorik. Esaterako, abenduaren 19an, larunbatean Santo Tomas egunaz gozatzeko aukera izango da Enparantza Nagusia. Haur jolasak, taloak, gaztainak, txistulariak, trikitilariak, bertsolariak eta nola ez, txorixoa ere ez dira faltako.

Santo Tomas eguna pasata, Olentzeroren bisita ere hor izango dugu ostegunez, hilaren 24an. Goiz partean eta baita arratsaldean ere eztarria kantuz urratu ondoren, Olentzero bera etorriko zaigu Enparantza Nagusira. Ondoan izango ditu, haurrez gain, noski, dantzariak eta abesbatzak. Olentzero ume guztiak pozik uzten saiatuko da, goxokiak, gaztainak... banatuaz. Momentuz Barrena atarian ipinita dago Olentzero, haur guztien sari-eskutitzak jasotzeko asmoz. Enparantza nagusira iritsi aurretik, ordea, herri gunetik bueltatxo bat ere egingo duela aitortu digu Olentzerok.

Eguberri egun horiek pasata, berriaz, 'XVI. Gabonetako Aldundiko Nazioarteko Sari Nagusia' izango da

Majori Kiroldegian. Aurtengoan ere, inguruko igerilari onenez gain, kanpotik ere etorriko dira hainbat izen handi. Hori guztia inuxenteen eguna pasata, abenduaren 29an, asteartez ikusi ahal izango da.

Jaiotzen erakusketa

Abenduaren 21etik urtarrilaren 3a bitartean Jakintza Ikastolako ikasleek egindako jaiotzen erakusketa izango da ikusgai Barrena Kultur Etxean. Ateak arratsaldeko 6etan ireki eta 8etan itxiko dira. Egun beretan AEK-k antolatutako Eguberriko postal eta idazlanen lehiaketan parte hartutako lanak ere ikusgai egongo dira aurretik aipatu etxean.

Kontsumo gizartea

Egun bizi dugun kontsumo gizarteari nolabaiteko kritika eginez, idazkia kaleratu du Ordiziako Jarraik. Gabonak gainean ditugun honetan, alperrikako kontsumoa handiagotu egiten dela eta hitzaldia eta solasaldia antolatu du aurretik aipatu taldeak. Berau abenduaren 29an izango da, asteartea, Gaztetxean bertan eta E.H.N.E.ko ordezkari bat ekartzeko asmoa du Jarraik.

Euroa

Pezetaren hiletak laster izango direla eta txanpon berria ezagut dezagun kanpaina berri bat martxan ja-

**Urdanetako Ikasle sarituak**

Aurreko ale batean erakutsi genizkizuen lumaz idatzitako lehiaketaren barruan Jakintzako sarituak zeintzuk izan ziren. Bada, oraingoan Urdaneta-Oianguren eskolakoei dagokie txanda. Argazkian ikus daitekeen bezala Jon Biguri irakasleak saria lortu zuen helduen mailan. Gazteen mailan, berriaz, DBHko Uxue Castañares eta Yaisa Etxezarreta izan ziren sari berezia jaso zutenak. Txikienen mailan Cristina Hernandez-ek egindako idazkiak izan ziren sarituak. Urdaneta-Oianguren ikastetxeko ikasleen partaidetza handia izan zen Euskal Herri osoan ospatutako lehiaketa bitxi horretan eta emaitzak begibistan geratu dira.

Urdanetak 25 urte

Urdaneta Herri Eskolak ere mende laurdena bete du eta hau dela eta ospakizunetan aritu dira egunotan. Hain zuzen ere, aurreko ostiralean ospakizunari hasiera eman zion ekitaldia burutu zuten. Berau Bustuntzan bertan duten ikastetxean egin zuten eta bertan ikusi izan ziren Urdanetako dantza taldea eta baita Ordiziako Errondaila ere. Ikasle ohiek mahaingurua eskaini zuten eta, nola ez, lunch eder batez gozatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren guztiek.

ria dago. Ordiziako hainbat denda eta tabernetan erosketak egin ondoren boleto berdeak banatzen dituzte. Bertan euroak agertzen dira, aurrerago eskuar-

tean izango ditugun euroak. Hainbat euro-konbinaketa egin ondoren sari paregabeak lortu daitezke gainera, guztira 3 milioi pezeta.

Aitor Calvillo

IRURENA

LENTZERIA MERTZERIA
ESKU LANAK

© 943 88 04 47
Urdaneta, 29 ORDIZIA



x Euskal zeramika
x Opariak
x Koadroak eta markoak
x Loreak

943 88 41 85 943 16 21 67
Elkano, 10 ORDIZIA Urdaneta, 12

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta
943 88 72 76

ATAUN

Joxemiel Barandiaran. VII. Urtemuga zikloa



Joxemiel Barandiaran Murkondo Kultur Elkartek, Joxemielen VII. Urtemuga oroitzu honako ziklo hau antolatu du:

Abenduak 11: 19:30etan, Artadi elkarteak. Bideo-hitzaldia: Txondarra. Antton Iztueta.

Abenduak 18: 14:30etan, eskolan. Ipuin kontaketa eta ondoren lehiaketaren sari banaketa egingo da.

Abenduak 19: 19:30etan,

Aian. Hitzaldia: Ataungo karobiak. Nekane Urdangarin.

Abenduak 22: 19:30etan, Udaletxeko ganbaran. Ikus entzutekoa, Felipe Uriarteen eskutik.

Abenduak 31: 12:00etan. Lore eskaintza. Saratik hilotz bira oinez joango da.

Oargi Troskaeta

Oargi Troskaeta Kultur Elkartea suspertu nahiean dabiltza herriko zenbait gazte.

Helburua, herriko gazte elkertan elkartzea eta ekintza desberdinak antolatzea dute. Elkarrekin honetako bazkide izan nahi ezkerreko telefono hauetara deitu daiteke: Josu (180180); Etxitxu (180387); Eloi (180479). Epea abenduaren 20 arte da.

Argazki Lehiaketa 98

Aurtengo Argazki Lehiaketak ondorengo emaitza hauek izan ditu:

1.- Lehen saria (60.000 pzt) Joxe Ramon Agirre, 'Txindoki Ataundik' argazkia-erantatik.

2.- Bigarren saria (25.000 pzt) Amaia Auzmendi, 'Lareo elurretan' izeneko argazki-erantatik.

3.- Hirugarren saria (15.000 pzt) Felix Urrutia, 'Gerizpetan' argazki-erantatik.

Ataungo Udalak bere esker ona azaldu nahi die parte hartu duten 35 argazkien

egileei eta aurkeztu gabe gelditu direnei, datorren urterako animatu daitezela eskatu.

Abenduaren 18tik 31ra, argazki guztiekin, erakusketak antolatuko da Udaletxeko ganbaran. Sari-emateak datorren abenduaren 19an, larunbata, eguerdiko 12etan egingo da Udaletxean.

Gaztaina jana eskolan

Lehenengo usadioarekin jarraituz abenduaren 19an, larunbata eta iluntzeko 19:00etan gaztaina jana izango J.M.Barandiaran eskolan.

Txartelak erosteko azken eguna abenduaren 14a izango da eta eskolan bertan izango dira salgai. Salneurriak; 1.100 pzt, helduentzat; 700 pzt bakarrik datozen 14 urtez azpikoentzat eta 500 pzt gurasoekin datozen umeentzat.

EZKIO-ITSASO

Errail antzerki taldea abenduaren 19an



Igaro dira hainbat urte Ezkio-Itsason azken aldiz antzerkia izan genuenetik. Urtearen amaiera iristen ari

den honetan, jendearen aisialdi denbora bete eta bide batez herrian somaturiko interesa hasetzeko asmoz an-

tzerki ekitaldia antolatu du Udalak.

Kultur ekintza hau aurrera eramateko, bere sorrera bidean lehen pausuak ematen ari den 'Yartu' Kultur Elkartearen laguntza garrantzi handikoa izan da.

Emanaldia Beasaingo Errail antzerki taldearen esku izango dugu. Antzerki lanaren izenburua 'Sexuaz hitz egin dezagun' da eta Ezkio-Itsasora iritsi aurretik arrakasta handia lortu du hainbat herritan zehar.

Bestalde, jendearen ikusmina areagotzeko, talde honen partaideetako bat Ainara Mujika herritarra dugula esan behar.

Emanaldia abenduaren 19an arratsaldeko 7etan Santa Lutzi auzoko Kultur Etxean izango da. Sarrera dohainik izango da eta lerro hauetatik inguruko jende guztia gonbidatu nahi genuke egun horretan Ezkio-Itsaso aldera.

Joseba Etxezarreta



PUB
XUBER

*Loinazko Festak ospatzen
Xuber zuekin!*

Zaldizurreta z/g BEASAIN

ETXEBE TABERNA



Festa onak pasa!

Zaldizurreta kalea
BEASAIN

ARRANO TABERNA


Pintxo eta ogitartekoak



*Jaietan ere preso eta
iheslariak gogoan*

Nagusia, 12
BEASAIN

Autowag, s.a.



Golf berria!

☎ 943 88 82 54 / 62 / 66

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

KOIOLE
KOIOLE



*"Mejunjea
dago"*

Zaldizurreta Kalea
BEASAIN

Etxezarreta kalea
ORDIZIA



TXINDOKI

LOGOS

altzarien banatzaile ofiziala

Sukalde eta bainuko altzariak

Jai zoriontsuak denoi!

J. M. Iturrioz, z/g (Matadero parean)

☎ 943 88 03 98

BEASAIN

ORMAIZTEGI
Iñaki Kanpos Zumarragako buzkantza lehiaketan irabazle


Argazkian Iñaki Kanpos, iaz Ordiziko euskal jaietan saria jaso zuenean.

Urtero bezala aurten ere Santa Lutzi jaien inguruan Zumarragan ospatu ohi den XVI. Jose Maria Busca Isusi buzkantza lehiaketa ospatu da. Aurtengoan Idiazabal, Ormaiztegi, Tolosa, Legazpi, Zumarraga, Zestoa, Ordizia eta Arrasatek etorritako hamaika harakinek hartu zuten parte. Harakin bakoitzak buzkantzak egiterako orduan bere berezitasunak izango baditu ere, ardi odola, tipula eta barazkiak izaten dira osagarri nagusiak.

Zumarragako buzkantza lehiaketan ormaiztegiar harakinek askotan lortu izan dituzte lehen postuak. Aurten ere horrela gertatu da, hain zuen Iñaki Kanpos herritar harakinak lortu baitu buzkantza onenaren lehenengo saria. Gainera Iñaki Kanpos dugu Zumarragako buzkantza lehiaketan garaipe gehien lortu izan dituen

harakina. Hain zuzen sei urtean (1984-85-86-88-92 eta 98an).

Dena den, Kanposena ez da herrira etorri den sari bakarra. Azken hiru urteetan buzkantza onenaren saria jaso izan duen Jesus Mari Debari aurkezpen onenaren saria eman diote.

Ander Deunaren jaietako lehiaketan emaitzak

Aurtengo Ander Deunaren jaietan eguraldiak batere lagundu ez badu ere, gure herrian festa giro ona izan da. Lehiaketa ugari izan ziren bertan. Mozorro egunean esaterako, Drakuin taldeak jaso zuen moztzorrik onenaren saria. Erizainek, sari berezia lortu zuten.

Ander Deunaren egunean bertan, XII. aldiz Ormaiztegi-ko odolki lehiaketa ospatu zen. Herriko enparantzan burutu zen lehenengo aldia

izan zenez, giroa aparta izan zen. Inoiz baino partaidetza handiagoa izan zen. Guztira 18 harakinek parte hartu zuten. Beraien artean Iparraldeko bik. Beasaingo Juan Mari Irizar harakinak lortu zuen lehen saria; bigarren postuan herriko Iñaki Kanpos eta Idiazabalgo Mujika berdinduta gelditu ziren.

Odolki lehiaketa honekin batera herriko enparantzan II. odolki osagaien azoka ospatu zen. Bertan tipularik onenen saria Juana Lazkanok lortu zuen; bigarren herriko Kasilda Iurritak. Porru-rik onenaren saria Kasilda Iurritarentzat izan zen; bigarren Juana Lazkanorentzat. Perrexil onenaren saria ere Kasildak lortu

zuen. Posturik dotoreenaren saria herriko Xabier Aseginolaza gaztetxoak lortu zuen; bigarren Juana Lazkanok. Azoka eta lehiaketa hauek osatuz Euskal Herri osotik etorritako bertako produktu ekoizleak izan genituen. Besteak beste, Deba Garaiko barazki eta fruitu kontserbak, Erronkariko gazta, Idiazabal gazta, hestebeteak, euskal pastela, gozokak, Nafarroako kontserbak, Lodosako piperrak...

Herriko jai nagusietan VI. pala txapelketa ere jokatu zen. Txomin eta Jose Luis bikotea izan ziren irabazle. Bigarren postua herriko Aitor Azpiazu eta Iker Iztueta- rentzat izan zen.

Aitziber Murua

Abizenak euskaratzeko zerbitzua martxan

Jatorriz euskal hizkuntzakoak diren abizenak eta orain arte arrazoi desberdinengatik erdaraz idatzita erabili behar izan dituzten herritarrei, abizen horiek euskaraz idatzita jartzeko aukera ematen duen zerbitzua martxan jarriko da.

Zerbitzu honen bitartez herritarrei tramitazio guztia herrian bertan egingo zaie, horretarako nahiko delarik egun batean nortasun agiria ematea eta handik egun batzuetara epaitegian agiri bat sinatzea.

Abizenak Euskaltzaindiak harturiko erabakien eta berak dioenaren arabera euskaratu ahal izango dira.

Zerbitzu hau datorren abenduaren 10ean jarri zen martxan eta urtarilaren erdira arte ondorengo egunetan zabalik izango da: abenduan, 15, 16, 17, 18, 22, 23, 29 eta 30ean; urtarilean, 4, 8, 11, 12 eta 14an. Zerbitzu hau udaletxean bertan, goizeko 11etatik ordu bietara eskainiko da. Argibide gehiago behar izanez gero nahikoa duzue egun horietan bertara hurbiltzea.

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

Olagi Sagardotegia

Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

IBAI-ONDO

ZURGINTZA ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 943 88 05 43 **BEASAIN**

LAZKAO

Bai euskarari!

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bultzatuta, abian da 'Bai euskarari' kanpaina Euskal Herri osoan. Lazkaon ere, ideia honi jarraituz, zenbait ekintza egiteko asmoa dago, euskara erabiltzearen beharraz, jendea jabetu dadin.

Lazkaon, ekitaldi nagusia, abenduaren 19an burutuko den 'XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari!' festa izango da. Goizean ur jokoak izango dira haurrentzat igerilekuan. Arratsaldean, taloak eta gaztaina erreak dastatzeko aukera izango da besteak beste, baita, daborrada, Antzar Gazteak txaranga eta Oin-arin dantza taldearen emanaldiak ikusteko ere.

Euskal Herrian ohi denez, festa honi, mahaiaren inguruan emango zaio amaiera. Horretarako, iparraldeko abeslariz lagundurik kantufaria egingo da Gerriko Txokoan gaueko 9,30etan. Afariaren menua ondorengo hau izango da: pikatxa, arkume erre, letxua eta mamia, hau guztia 2.000 pezetaren truke. Izena, Gerriko Liburudenda (943-886500) nahiz Tabernan (943-889943) eman daiteke abenduaren 17a baino lehenago. Afariaren aurretik ere kantuan aritzeko aukera izango dugu, baina, abesteko egokiera onena afalostean izaten denez, ez ahaztu laguntzaile bikainak izango ditugula kantuan aritzeko.

Txorizugarrien erakusketa

Abenduaren 16an emango zaio hasiera txorizugarrien lehiaketan parte hartu duten kusoaren erakusketari. Lehenik, esan beharra dago, 40 baino gehiago izan direla aurtengo lehiaketan parte hartu dutenak, gainera, adin guztietako jendeak hartu du parte.

Lehiaketaren sari banaketa abenduaren 18an, ostirala, izango da. Txorizugarri edo kusoak ikustera joatea benetan gomendatzen dizuegu, bertan garbi ikusten baita lazkaotar askoren irudimena zenbatekoa den. Erakusketa, Udaletxean izango da honako ordutegiarekin: **abenduaren 16 eta 17an:** 10etatik 12etara eta 3etatik 6etara. **Abenduaren 18an:** 10etatik 12etara eta 6,30etatik 8etara. **Abenduaren 19an:** 11etatik 2etara eta 4etatik 8etara. **Abenduaren 20an:** 11etatik 2etara eta 5etatik 8etara.

Euskal liburu eta diskoen azoka

Duragokoaren segidan, Lazkaon ere ohitura bihurtu zaigu Euskal Liburu eta Disken Azoka egitea, nahiz eta modu askoz apalago batean izan.

Aurten ere Udaletxe atarian egingo da azoka, kontzejupean, abenduaren 18, 19 eta 20an. Ondorengo hau izango da azokaren ordute-



Escola tailerra amaituta

Joan den azaroaren 29an, amaitutzat eman zen Udaletxeko eranskin berrian kokatuta egon den eskola tailerraren lana. Lan honi amaiera emateko zenbait ekitaldi egin ziren egun hartan, hala nola, diplomen banaketa, lanen bideo baten ikustaldia eta azkenik bazkari bat ere egin zuten bertaratutakoek.

Bi urte inguru iraun duen proiektu honetan, 40 lagun hasi ziren, baina, askok lana aurkitu zuten edo ikasketekin jarraitzea erabaki zuten, ondorioz 17 lagunek amaitu dute bertan. Lanbide bat baino gehiago ikasteko aukera izan dute bertan gazte hauek, eta orain aukera hobeia izango dute merkatu laborala delakoan sartzeko.

Bide batez, Kultur Etxeko lanak gazte hauen esku gelditu dira, eta esan beharra dago gainera, lan hauek oso aurreratuak daudela. Egia esan, erremateak ematea bakarrik falta da Kultur Etxe berria martxan jartzeko.

gia: **abenduaren 18an:** 4,30etatik 8etara. **Abenduaren 19an:** 11etatik 2etara eta 4etatik 8etara. **Abenduaren 20an:** 11etatik 2etara.

Liburu eta diska guztiek %10eko beherapena izango dute Udaletxearen laguntzari esker. Gabon aurreko erosketak egiteko aukera ezin hobeia duzue beraz, egun hauetan Udaletxeko atarian.

Kultur eskaintza zabala dugu, beraz, urte amaiera bitartean herrian, eta jende asko ibiliko da eskaintza hori guregana heldu dadin lanean, horien artean, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, Maizpide Euskaltegia, Gerriko, Lazkaoko Udala eta 'Bai euskarari!' batzordea.

Urko Irastorza



"Ekogarbi ilargia bezain garbi"

© 943 16 02 23 - 970 95 00 88
Atxisain baserria IDIAZABAL

Garbiketa eta mantentze zerbitzuak

SERIOITASUNA,
KONFIDANTZA,
PROFESIONALITASUNA



AUTO ESKOLA

Ondo pasa gabonak!

TELEFONOAK:

Lazkao: 943 88 72 99
Beasain: 943 88 18 96

SEGURA

Presoen aldeko taldea

Banderolak balkoietan: pasa den abenduaren 10etik (giza eskubideen eguna) hasita, gabonak pasa arte 'Euskal presoak Euskal Herrira' lema duen banderola balkoi edo leihoetan jartzeko proposamena egin nahi diete herritarrei. Hauek, Elorripen dau de salgai.

Jokin Aldanondo Luzuriaga: Gabonetan edo beste edozein garaitan idatzi nahi dionak haxe du helbidea: Centro penitenciario de Burgos. Apdo. 253. Camino de Villalón, s/n. 09071 Burgos.

Presoen alde kantu-eskera: abenduaren 24an, urterro bezala, baserri aterako dira hainbat lagun goizeko 9etan plazatik. Iluntzean, presoen argazkiekin Olentzeroren inguruan 'Hator hator mutil etxera' kantatuko da.

Plenoa: eguna zehaztu gabe baldin badago ere, Segurako udaletxean pleno berezia izatekoa da. Bertan, presoen inguruko mozioa aurkeztuko da.

Pelota

Gipuzkoako klubaren arteko txapelketan, zapatuan abenduaren 19an, eguerdiko 12etan, jubenilek oñatiarren kontra jokatuko dute. Aurrez, herriko mutikoen arteko bi partida izango dira. Afizionatuek kanpoan jokatuko dute, abenduaren 18an azkoitiarren aurka.

Labur-labur

● **Santo Tomas egunez ganadu perie.** Herriko helduek gogoan dute abenduaren 21ean ganadu azoka egiten zenekoa. Antonkaleneko Bittor Agirrek dioenez, txerri gizenak eta hauen txerriumeak izaten omen ziren protagonista nagusiak. Feria,

San Nikolas txikiaren egunarekin hasitako gabon kutsuko festa eta ospakizunek, izango dute jarraipenik ondorengo egunetan ere. Ekitaldi gehienak abenduaren 15eko udaleko kultura batzordean zehaztekoak bazarren ere, badira aurrera daitezkeen batzuk.

Gabon apaingarrien txapelketa: abenduaren 15eko bileran jakingo da iaz lehe-

Gabonak

nengo aldiz antolatu zen lehiaketa honek jarraipenik izango duen.

Olentzero eguna: txistulariak, korua eta herritarrek lagun dituela, abenduaren 24an arratsaldeko 6etan izango da Olentzeroren etorrera. Ikazkin jantzita, antortxeroak lagun dituela mendiz egingo du herrira etorrera. Iaz egokitu zen karriz herriko kaleak zehar-

katuta, plazan amaituko du ibilbidea. Bertan, umeei solasaldia izango du, opariak ere bertan banatuko dituelarik. Herritarrei baserritar jantzita ateratzeko eskatzen zaie.

Segura irratia: arratsaldeko 4etatik 7,30ak aldera arte, urteroko gabonetako programazio berezia izango da. Abeslariak, trikitilariak, bertsolariak eta abarrek osatuko dute gabon ikuttuko saioa.



Haurren kantu eta anda txapelketa: abenduaren 20an, meza nagusiaren ondoren, urteroko neska-mutikoen gabonetako kantu emanaldia eta anda erakusketa izango dira. Lanak, plazan aurkeztu beharko dira goizeko 11,30etarako. Atal bakoitzeko 3na sari banatuko dira eta partehartzaile guztiek izango dute opariren bat. Argazkian, orain dela 9 urteko anda txapelketan parte hartu zuten neska-mutiko koadrila.



Olentzero eskolara: abenduaren 23an, arratsaldeko 6etan, Olentzero beheko eskolara etortzeko. Ikazkin zaharrak 3tik 7 urtera bitarteko neska-mutikoei intxaurrak banatuko dizkie eta euren eskutitz eta marrazkiak jasotzeaz gain, beren kuriositate eta galdera guztiak asetzen saiatuko da. Argazkian, orain 4 urte Olentzerok eskolako umeei egin zien bixita.

gaur egun parkea dagoen ganadu plazan zentratzen bazen

ere, Kale Nagusia behetik gora garoa zoruaz zela, txerri

gizenez beteta egoten omen zen, inguruko herrietatik ere jende ugari inguratzen zelarik bertara. Santo Tomasekoaz gain, San Bizente eta Santiago egunetan ere antolatzen omen ziren ganadu periek.

● **Iñaxio Imazek** eta Ezkurak erremonteko txapelketa nagusiko finalerdietako lehenengo partidua irabazita, zapatuan zuten jokatzeakoa bigarrena. Biak irabaziz gero, finala izango lukete hilaren 24an.

● **Mendiko federatu karneta** berri edo ateratzeko mendi elkartekoren batekin edo Txetxu Ormazabalekin jarri behar da harremanetan.

Joseba Telleria



Segurako postalak: Aizkoeta-erdi aldetik aterata, atzean Aizkorri elurtua dela ikus daiteke herria. Argazki bera, koloretan nahiz txuri-beltzean (azken hau Gabonetarako postal modura) atera dituzte. Hauen egilea, Javier Fernández Sánchez da eta Prycako aldizkaridendan behintzat aurki daitezke.

Goierriko bertsolari gazteak Oñatin txapeldun



Azaroaren 28an jokaturako Emilio Urzelai IV. Sarian Aitor Sarriegi, Igor Eguren eta Iñaki Apalategi geratu ziren lehenengo postuan. Oñati eta Goierriko bertsolari gazteen arteko taldekako sariketa izan zen. Hiru txantxiku: Lander, Joseba eta Iñaki. Hiru bare: Aitor Sarriegi, Iñaki Apalategi ('Mamarro') eta Igor Eguren. Oñatiko Pagouso elkarten hiruregoiren bat lagun bildu ginen. Epaimahakoa, berriz, Mikel Mendizabal, Nikolas Segurola eta Patxi Goikoeleak osatu zuten.

Sariketa laugarren aldiz jokatzen bazen ere, estrainekoz probatu zen taldeka. Ordubete inguruko saioa izan zen. Taldekako lana izaki,

taldeak berak aukeratu zuen egin beharrekoaren banaketa. Ariketa ezberdinen artean gai-jartzaileak taldeko bati objektu bat luzatu zion hari buruz bertsoa bota zezan. Goierriko taldeari peluka edo ileordea egokitu zitzaion, eta Igorrek kantatu zuen. Gainerantzean, ofiziotan, puntuari erantzunez, eta bakarkako gaiean jardun ziren.

Goierritarrak irten ziren garaile. Antolatzaileek, orde, garbi azaldu zuten sariketaren helburua bestelako azela; bertso eskolen arteko harremanak sendotzea, alegia. Horregatik, "errebantxa" modukoa jokatzea planteatu zen, hurrengo topagunea Goierri izanik.

Emilio Urzelairen izena gogoratuz amaitu zen sariketa, hasi bezalaxe. Bertso jardunak, berriz, Oñatiko kalee-

tan izan zuen segida. Patxaran eta guzti. Baina ezin kontatuko ditugu denak.

Alaitz Sarasola

'Ehun urte berrehun bertso'

Beasaingo Ikastolak Gabon hauetarako antolatu duen kanpainaren barruan, urtarilaren 2an, 22:00eta bertso jaialdi berezia izango da, Bernedoreneko karpan: 'Ehun urte berrehun bertso'. Bertso jaialdi berezia izango da. Bertsolaritzaren ehun urte hauetako hainbat pasarte gogoratuko dira bertsoan. Narratzaileak Xabier Euzkitze eta Joxerra Gartzia izango dira. Bertsolariek aurrez jakingo dute bakoitzari egokituko zaion pasarte zein izango den. Beraz, aurrez pentsatutako bertsoak kantatuko dituzte. Jardunean ariko diren bertsolariak hauek izango dira: Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Miren Bilbao, Iñaki Murua, Mikel Mendizabal eta Jon Sarasua; gidoia: Andoni Egaña. Musikak lagunduko du jaialdia. Aitor Sarriegi beasaindarrak prestatu du musika, Izaro Garmendia eta Juanxo Zeberioaren egokitzenekin. Oholtza gaiean arituko diren musikariak Pello Ramirez, Izaro Garmendia eta Juanxo Zeberio izango dira. Sarrerak 1.500 pezetan jarriko dituzte salgai. 12-18 urte bitartekoek, 800 pezetan. Hortik beherakoek, dohainik.

Alaitz Sarasola

Gazteentzako XV. Xenpelar bertsolari txapelketan Alaitz Sarasola ordiziarak hartu zuen parte. Laugarrena izan zen ordiziarra, lehenengo hiru sailkatuetatik oso-oso gertu. Bertsorik onenaren saria berarentzat izan zen.

Ekaitz Goikoetxea eta Iker Zubeldia

Bi bertsolari beasaindar hauek, sari bana irabazi dute bertso-paperetan. Zumarraga-Urretxuko udalek antolatua, aurtengo hau, XIV. bertso-paper lehiaketa izan da. Bertan, eta gazte mailan, 14-19 urte bitartekoan, Ekaitzek eskuratu du lehen saria eta Ikerrek bigarrena.



Gabon

zoriontsuak
denoi!

Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
© 943 16 02 48
ORDIZIA

ANGEL IMAZ

PINTURA
eta
PAPERGINTZA



☎ 943 18 70 49
Ondramuño etxea IDIAZABAL

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Eguberri zoriontsuak denoi!

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 ORDIZIA

Gabon jai zoriontsuak pasa ditzazuela!



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

Diseinua
Berrikuntzak
Kalitatea
Garantia



Gabon kantuan Ataun San Gregorion

1977ko Eguberrietan ateratako argazkia da honakoa. Ataungo San Gregoriokoak dira haur guztiak eta Karmele Aierbe andereñoak ateratakoa da, ikastola parean.

Goitik behera, lehenengo lerroan, ezkerretik eskubira: Elena Apalategi, Elisabet Arrese eta Idoia Beloki.

Bigarrenean: Iñaki Aierbe, Julen Munduate, Eli Auzmendi, M. Jose Baztarrika, Amaia Bikuña, Amaia Aierbe, Carlos Perez, Mikel Goikoetxea, Silvia Dorronsoro, Anartz Zurutuza eta Asier Auzmendi.

Tarteko hirurak: Didaka Albisu, Joseba Arin eta Jon Arin.

Eserita: Eli Cid, Edurne edo Agurtzane Munduate, Aritz Cid, Maider Aierbe, atzekoa ezezaguna, Iñigo Dorronsoro, Zorion Baztarrika, Edurne edo Agurtzane Munduate, Ana Perez eta Larraitz Zurutuza.



BIÑASPRE

USAINDEGIA
OPARIAK
ESTETIKA ZENTRUA

Opariak
Gabonak 98

K. Nagusia, 8 ☎ 943 88 13 37 ORDIZIA

mujika

OINETAKOAK

Nafarroa Etorbidea, 11
☎ 943 88 27 16 BEASAIN

MUGUJAR

Argiztapenak



Gabon zoriontsuak igaro ditzazuela!

Euskal Pilota, 4 eta 5
☎ eta faxa: 943 88 86 88
☎ mugikorrak: 619 46 22 65
eta 619 46 22 68
ORDIZIA



- ✓ Ileapaindegia
- ✓ Edergintza
- ✓ Solariuma

EGUBERRI
ZORIONTSUAK
DENOI!

Nafarroa Etorbidea, 37
☎ 843 88 02 97 BEASAIN



Poltsak
Oinetakoak
Bidaia artikuluak

Nagusia, 13
BEASAIN

Sta. Maria, 15
ORDIZIA

MUNDUATE ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

- ✕ BITXI AUKERA HANDIA
- ✕ ERLOJU AUKERA ZABALA
- ✕ ZILARRERIA



☎ 943 88 12 72

Kale Nagusia, 1-2
ORDIZIA



Foto IBILTARIA



ARCO
IRIS
DE KODAK

Gran Lujo

Index

**HAUXE DUZU
AUKERARIK
HOBERENA!**

13x19

13x19 neurriko argazkiak
10x15ekoen prezio berdinean

Kalitate hobia eta neurri
handiagoa

Denetan kopia indizea barne

GEMA M. ARRUGAETA

Argazkilari profesionala

Elkano, 8 (Asto Kale)

DAVID MONTERO ARRUGAETA

Bideo eta T.B.-n espezialdutako teknikaria

☎/faxes: 943 16 22 64

ORDIZIA

Abenduak 10-etik 24-ra

Eguberriaren Funtza

¿HAY SITIO PARA MÍ?

Txolategzko turroia PRYCA
300 gr.

165

Almendrazko turroi biguna
PRYCA
300 gr.

369

Almendrazko turroi
gogorra PRYCA
300 gr.

369

NAVIDAD EN TODOS LOS RINCONES

Kaba erdi lehorra
Castell del Llac
75 zl.

352

Kaba Brut
Castell del Llac
75 zl.

389

PAGA TU COMPRA
A FIN DE MES
SIN RECARGO



PRYCA

Te escuchamos.

PRYCA PASS TXARTELA. NAHI DEZUN BEZELA ORDAINDU.

PRYCA

GOIERRI

